



NAFARROAKO PARLAMENTUKO

ALDIZKARI OFIZIALA

VIII. legegintzaldia

Iruña, 2013ko otsailaren 26a

22. ZK.

A U R K I B I D E A

B SAILA:

Foru lege proposamenak:

- Eskubide Sozialen Gutun baterako Foru Lege proposamena. Bildu-Nafarroa, Aralar-Nafarroa Bai eta Izquierda-Ezkerra parlamentu-taldeek eta atxiki gabeko foru parlamentari Manu Ayerdi Olaizola eta Patxi Leuza García jaunek aurkeztu dute (3. or.).
- Foru Lege proposamena, Nafarroan Merkataritza arautzen duen uztailaren 12ko 17/2001 Foru Legeko 33. artikuluko 2. idatz-zatia aldatzen duena. Aurkeztutako zuzenketak (11. or.).

E SAILA:

Jabeldurak, mozioak eta adierazpen politikoak:

- Mozioa. Horren bidez, Osasun Departamentua premiatzen da “Mediterránea de Catering” enpresarekin sinatutako kontratua indargabetu edo administratiboki desegin dezan. Osasun Batzordeak bazter utzia (15. or.).

F SAILA:

Galderak:

- Galdera, jakitekoa zer proposatzen duen eta zer jarrera daukan Gobernuak Nafarroako ehiza-barrutietan barrutizaina eduki beharri eta haren eginkizunei dagokienez, Marisa de Simón Caballero andreak egina (16. or.).
- Galdera, Nafarroako ospitalegunean izandako dieta-kutsadurako kasuei buruzkoa, Roberto Jiménez Alli jaunak egina (17. or.).
- Galdera, jakitekoa zer balorazio egiten duen Nafarroako Gobernuak Gobernuko lehendakari ohi Miguel Sanz jaunaren adierazpen publikoei buruz, zeinetan uko egiten baitzion Nafarroako Kutxan berak egindako kudeaketaren gaineko azalpenak emateari Parlamentuan, Maiorga Ramírez Erro jaunak egina (17. or.).
- Galdera, 2013rako aurrekontuen proiektuan aurreikusita zeuden eta luzatutako aurrekontuetan jaso ezin izan diren gaietako buruzkoa. Gaurkotasun handiko galdera gisa izapidetzea (18. or.).

H SAILA:

Bestelako testu arau-emaileak:

- 1/2013 Legegintzako Foru Dekretua, otsailaren 13koa, Tributu Harmonizazioari buruzkoa, Balio Erantsia-
ren gaineko Zergari buruzko abenduaren 30eko 19/1992 Foru Legea aldatzen duena (19. or.).
- 2/2013 Legegintzako Foru Dekretua, otsailaren 13koa, Tributu Harmonizazioari buruzkoa, Zerga Bereziei
buruzko abenduaren 30eko 20/1992 Foru Legea aldatzen duena (25. or.).

B saila:
FORU LEGE PROPOSAMENAK

Eskubide Sozialen Gutun baterako Foru Lege proposamena.

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2013ko otsailaren 18an egindako bilkuran, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

Nafarroako Foru Eraentza Berrezarri eta Hobe-tzeari buruzko Lege Organikoaren 19.1.b) artikulua aitortzen dion legegintzarako ekimena erabiliz, Bildu-Nafarroa, Aralar-Nafarroa Bai eta Izquierda-Ezkerra parlamentu-taldeek eta atxiki gabeko foru parlamentari Manu Ayerdi Olaizola eta Patxi Leuza García jaunek Eskubide Sozialen Gutun baterako Foru Lege proposamena aurkeztu dute.

Hori horrela, Legebiltzarreko Erregelamenduko 148. artikuluan ezarritakoarekin bat, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, hona

ERABAKIA:

1. Agintzea Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Eskubide Sozialen Gutun baterako Foru Lege proposamena.

2. Foru lege proposamen hori Nafarroako Gobernuari igortzea, Erregelamenduko 148. artikuluan ezarritako ondorioetarako.

Iruñean, 2013ko otsailaren 18an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

Eskubide Sozialen Gutun baterako Foru Lege proposamena

ZIOEN AZALPENA

Nafarroako Foru Eraentza Berrezarri eta Hobe-tzeari buruzko abuztuaren 10eko 13/1982 Lege Organikoak, 44. artikuluan, eskumen osoa ematen dio Nafarroako Foru Komunitateari gizarte laguntzaren arloan, eta eskumen hori baliatuta, Nafarroako Gobernuak eta Parlamentuak zenbait lege-arau onetsi dituzte, eskumen hori garatze aldera. Halatan onetsi dira Gizarte Zerbitzuei buruzko 14/1983 Foru Legea; Gizarte zerbitzuen arloko prestazioak eta laguntzak, banakakoak eta familierak, arautzen dituen 168/1990 Foru Dekretua, Nafarroako Foru Komunitatean lehen aldiz ezarri

zuen oinarritzko errenta, zeinaren bidez lehentasuneko beharrezko beharrezko estaldura ziurtatzeko diru-sarrera jakin batzuk jasoko baitituzte familia-unitateek; Gizarte Bazterkeriaren aurkako Plana, Nafarroako Gobernuak taxutu eta Parlamentuak 1999ko otsailaren 5ean berretsia; Eskubide Sozialen Gutun baterako 9/1999 Foru Legea, nafar herritarrei oinarritzko errenta eskuratzea segurtatzen diena; Oinarritzko errenta arautzen duen 120/1999 Foru Dekretua; Gizarte Zerbitzuei buruzko 15/2006 Foru Legea, prestazio bermatutzat jotzen duena oinarritzko errenta; Gizarte Zerbitzu Orokorren Zorroa onesten duen 69/2008 Foru Dekretua, zeinak azpimarra jartzen baitu oinarritzko errentaren izaera bermatuan eta, hortaz, eskubide subjektibo gisa galdagarri izatean; eta Eskubide Sozialen Gutun baterako apirilaren 6ko 9/1999 Foru Legea aldatzeko uztailaren 2ko 13/2008 Foru Legea, oinarritzko errenta eskuratzeko baldintzak hobetzen dituen eta eskuratze hori errazten duena.

2012ko otsailean Gizarteratze-errenta arautzen duen 1/2012 Foru Legea indarrean sartu arte, Nafarroako Foru Komunitatean goranzko joera marrazten zuen, populazioaren beste sektore batzuei aplikatuta, gizarte ongizatearen sistemaren laugarren zutaina deitzen hasita zegoenaren sustapenak. Gizarteratze-errentari buruzko lege horrek indargabetu zuen diru-sarrerarik gabeko etxe nafarrei estaldura sozioekonomikoa ziurtatzen zien oinarritzko errenta taxutuz eta definituz joan zen legedia. Aipatu foru legeak murriztu egin zituen errenta jasotzeko baldintzak eta epeak, halako moduan non, legea betearaztean, murriztu egin baitira pertsona eta familia askoren eskubide sozialak, gizarte-babesekeko sistematik kanpo gelditu baitira. Gizarte Politiketako Departamentuaren beraren datuen arabera, 3.500 familiari baino gehiagori ukatu zaie prestazioa, eta horiei beste 1.500 edo 2.000 familia inguru gehitu behar zaizkie, baldintza murriztaile horiek ez betetzeagatik prestazioa eskatu ere egin ez dutenak.

Kopuru horiek sozialki onartezinak dira, Nafarroako gizartean pobrezia areagotu izanaren era-

kusgarri direlako; berez justifikatzen dute bere gizarteratze-helburua lortzen ez duen lege bat aldatzea, eta orain aurkezten dena onestea justifikatzen dute; izan ere, lehengo oinarrizko errenta berreskuratu nahi da, egungo krisiaren ondorio sozialak arintzera eta krisiak ireki duen haustura sozialaren handitzea ekiditera bideratutako aurre-erapausoekin, herritarren bizi baldintzak hobetzeko balia bideak jarri.

Halatan, oinarrizko errentari buruzko lege berriak proposatzen du indarrean dagoen Eskubide Sozialen Gutun baterako 9/1999 Foru Legeko I. tituluan jasotako printzipioak berreskuratzea: "Herritartasun eskubide unibertsalak berrestea lan merkatutako sarbidea itxirik duten pertsona guzti-entzat, behar den diru-sarrerarik ez baitute beste-ek dituzten eskubide berekin bizitza duin bat izateko, kulturara iristeko, eta etxebizitza, zerbitzuak, hezkuntza, osasuna eta gizartean integrazio osoa izateko ere. Gizartearen produktutik herritar bakoitzari dagokion zatia izateko eskubidea benetan aitortzea, bila ibili arren lanik aurkitzen ez dutentzat oinarrizko errenta bat emanez". Hortaz, oinarrizko errenta prestazio ekonomiko bermatu eta bahiezintzat joko dela planteatzen da, bizilekua Nafarroan duten familia-unitate guztiei bideratua, inolako diskriminaziorik egin gabe arraza, sexu, erlijio, sexu-joera, jatorri edo administrazio-egoera direla-eta, behar adinako diru-sarrerarik gabeko pertsonen kasuan eta beren narriadura soziala ekiditeko laguntza ekonomikoa behar dutenen kasuan.

Oinarrizko errentari buruzko lege berriak orobat planteatzen du ez dela aski lehengo lege-egoerara itzultzea. Gero eta pertsona gehiago dago gizarte-bazterketara bulkatuta; izan ere, azken urteotan igo egin da langabezia dauden herritarren kopurua -52.000 pertsona inguru-, inolako diru-sarrerarik ez daukaten familien kopurua -2011n, 7.000 etxe- edo pobrezia-arriskuan jartzen dituzten diru-sarrerak dituztenena -Nafarroan, hilean 960 eurotan dago muga hori, "Desberdintasuna, pobrezia eta gizarte-bazterketa Nafarroan" izenarekin CIPARRAII Sek egindako lehen txostenaren arabera-; eta horri guztiari gehitu egin behar zaizkio lan- eta gizarte-eskubideak murrizteko politikak -gizarteratze-errentaren zenbatekoak pixkanaka jaistearen lehen 12 hilabeteetatik aitzina edo are eskubidea galtzea errenta 24 hilabetez jaso ostean-.

Baina, gizarteratze-errentak eta bere murrizketek orobat ekarri dute gora egitea hipoteka-maila-eguen edo etxebizitza-alokairuaren -librearen nahiz sozialaren- kostuari aurre egiteko zailtasun handiak edo ezintasuna duten familien kopuruak eta, hortaz, oinarrizko eskubide bat -etxebizitza- gal-

tzea, horrenbesteko beldurra eragiten duten eta horrenbestetan aipatzen diren etxegabetzeak exekutatzeko. Arau honek orobat arindu nahi ditu egoera berri honetatik heldu diren arazoak; ez dauka ahalmenik etxebizitza eskuratzea eta etxegabetzea egun arautzen duten politikak eta legeak aldatzeko, ez dauka lege-ahalmenik arazo hau konpontzeko, baina badu ahalmena gertatzen ari diren ondorio sozial dramatikoak moteltzen saiatzeko. Horrenbestez, etxebizitza duin bat mantentzeko laguntza ekonomikoko neurriak jasotzen ditu.

Lege honek asmo du babes-maila handitzea, bere garaian tokirik izan ez zuten zenbait alderdi jasoz, koiuntura honetan are beharrezkoagoa baita alderdi horiek testuan jasotzea. Halatan, 65 urtetik gorako pertsonak oinarrizko errentaren balizko jasotzaileen artean sartzen dira, diskriminazio-egoera bat, bidegabekia, zuzenduz, gure gizarteko nagusiek ez baitute halakorik merezi. Ez da mugatzen prestazioa jasotzeko epea, eta hari euts dakioke harik eta hura jasotzeko eskubidea sortu zuen egoera bertan behera geratu arte. Hartara, prestazioa pertsonekin lotuko da, ez epeekin.

Bestalde, pertsonaren eskubidea den aldetik eta, horrenbestez, prestazio ororen ukatzeak arrazoitua izan behar duenez, administrazio-isiltasunaren ondorioa aldatzen da, eta ezartzen da administrazioak ezarritako epeetan ez erantzuteak berarekin ekarriko duela prestazioa eman egin dela.

Azkenean, egungo arauak indarririk gabe uzten ditu gizarteratze errentari buruzko legea eta hura garatzen duten foru dekretu eta foru aginduak, zeren eta ulertzen baitu indarrean egon den aldian erakutsi duela ez dela nahikoa izan gizarte kohesioa eta arriskuan edo bazterketa sozialeko egoeran daudenen babesa ziurtatzeko. Haren arauetako batzuk, gainera, kontraesankorrak edo babes horren aurkakoak dira. Hartara, lege berriak zuzendu nahi ditu orain dela urtebete onetsi zen gizarteratze errentak izandako eragin suntsigarriak, eta Nafarroako Foru Komunitatea berriz ere buruan jarri nahi du pertsonen eskubide sozialak aurrera eramatearen eta aitortzearen arloan. Hain zuzen ere, legea bidezkoagoa da zaugarrienak diren pertsonentzat, eta pentsatuta dago gizarte kohesioa lortzeko, zeren eta gizarte batek aurrera egiten baitu bere herritar guztiek aldi berean aurrera egiten dutenean.

1. artikulua. Foru lege honen xedea.

Foru lege honen xedea da Nafarroako Foru Komunitatearen eremuan Eskubide Sozialen Gutuna aldarrikatzea, egoitza Nafarroako edozein uda-

letan duten herritar guztiei, beren lege- edo administrazio-egoera kontuan hartu gabe, lan bat eskuratzea ahalbidetuko diena, eta oinarrizko errenta eskuratzea ere bai, baldin eta Gizarte Zerbitzuei buruzko Foru Legean ezarritako baldintzak betetzen badituzte, aukera izan dezaten, horrela, herritartasun-eskubide guztiez bere osotasunean baliatzeko.

Horretarako, esku-hartze mekanismoak ezarriko dira desoreka sozialen gainean; izan ere, desoreka horiek areagotzen ari dira egiturazko langabezia, lanaren prekarizazio, pobrezia hazkunde eta gizarte-bazterketaren kronifikazio itxurapean, enplegu suntsiketako egoera ekonomikoaren ondorioz, eta okertu egin dira etengabeko murrizketa ekonomikoak eta eskubide sozialenak direla-eta.

2. artikulua. Foru lege honek printzipio gidatzaileak.

Herritartasun eskubide unibertsalak berrestea lan merkaturako sarbidea itxirik duten pertsona guztientzat, behar den diru-sarrerarik ez baitute bestek dituzten eskubide berekin bizitza duin bat izateko, kulturara iristeko, eta etxebizitza, zerbitzuak, hezkuntza, osasuna eta gizartean integrazio osoa izateko ere.

Gizartearen produktutik herritar bakoitzari dagokion zatia izateko eskubidea benetan aitortzea, lan bila ibili arren halakorik aurkitzen ez dutentzat oinarrizko errenta bat emanez.

3. artikulua. Kontzeptua edo definizioa.

1. Oinarrizko errenta da aldizkako prestazio ekonomiko, bahiezin eta ziurtatua, oinarrizko premiei aurre egiteko diru baliabiderik ez duten familiarentzako. Hala ere, bateragarria da berariazko beharrianak estaltzera bideratutako eta atxikitako helburu jakina duten beste laguntza batzuekin.

Oinarrizko errenta da prestazio osagarria eta indarrean dagoen legedian aurreikusitako beste edozein baliabide eta gizarte-prestazio ekonomikoren subsidiarioa. Baliabide eta prestazio horiek osorik erabili beharko dira oinarrizko errenta eskatu aurretik.

2. Oinarrizko errentaren unitate hartzailea

1. Honako kontzeptuak hartuko dira kontuan:

a) Familia-gunea: eskatzailea eta haren ezkontidea edo harekin gisako afektibitate-harremana duen pertsona. Indarrean dagoen legeriari jarraikiz, familia-guneko kideztat hartuko dira ondokoak ere:

Etxean bizi diren seme-alabak.

Familia-harrera administratibo edo judizialeko egoeran bizi diren adingabeak.

Aldi baterako familiaren bizitokitik kanpo bizi diren seme-alabak, horren arrazoia ikasketak egiten dituzten ikastetxetiko hurbiltasuna bada.

b) Familia-unitatea: eskatzailea eta, kasua bada, harekin bizi diren pertsona bat edo gehiago, eskatzailearekin lotura dutenak ezkontuta daudela edo gisako afektibitate-harremana dutelako, zein ere den haien sexu-joera, edota bigarren maila bitarteko odol-ahaidetasuna edo lehen maila arteko ezkontza-ahaidetasuna dutelako.

2. Orokorrean, unitate errenta-hartzailea bat etorriko da familia-unitate gisa definituarekin. Beraz, familia-unitate bakoitzak oinarrizko errenta bakarra hartu ahal izanen du.

3. Aparteko kasuetan, familia-unitate berak bi oinarrizko errenta jaso ahalko ditu honako kasuetan:

a) familia-unitatea familia-gune batek baino gehiagok osatzen dutenean eta horietako bat guraso bakarrekoa denean eta hartan adingabeak daudenean.

b) familia-unitatearen barruan adingabeak dituzten bi familia-gune daudenean, guraso bakarrekoa izan nahiz ez izan.

4. Bi unitate errenta-hartzaile edo gehiago bizi badira etxebizitza berean, eta ez badago ahaidetasunik beren artean, bakoitzak oinarrizko errenta bat hartuko du.

4. artikulua. Errenta hartzeko baldintzak.

1. Hurrengo kolektibo hauetako batekoa izatea:

a) 25 urtetik gorako pertsonak edo adin horretatik beherakoak, familia-unitate independente bat osatzen dutenean.

b) 18 urtetik gorako pertsonak eta 25 urtetik beherakoak, adingabeak babesteko programaren batetik heldutakoak, emantzipazio prozesuetan.

c) % 33tik gorako eta % 65etik beherako ezgaitasuna izan eta beren ezgaitasuna dela-eta diru-sarrerarik jasotzen ez duten pertsonak, Gizarte Politiketako Departamentuak ezarritako baldintzak betetzen badituzte. Kolektibo honentzako laguntzen gehieneko zenbatekoa baliaezintasuneko kotizazio gabeko pentsiorako ezarritakoaren berdina izanen da.

2. Zuzenbidean onartutako moduren batez frogatzea helbidea Nafarroan izatea, gutxienez ere 12 hilabeteko antzinasunarekin.

3. Azken seihilekoan, familia-unitatearen baliabide ekonomikoak, hilabetez hilabete kontatuta, txikiagoak izatea familia-unitateko kideen kopurua araberako egokituko litzaiokeen oinarritzko errentaren bikoitza baino.

4. Eskubidez legozkiokeen mota orotako laguntzak, pentsioak, prestazioak edo sorospinak eskatu izana aurretiaz Administrazioetako edozeini eta Gizarte Segurantzari. Eta, horri dagokionez, elikagai-pentsioak ez ordaintzetik heldutako lege-akzioak gutxienez ere hasi izatea.

5. Salbuespen gisa, eta espedientean objektiboki justifikatutako arrazoiengatik, familia-unitate bat osatzen duten pertsonak prestazioaren onuradun izan ahalko dira, nahiz eta baldintza guztiak ez bete, baldin eta behar bereziko egoeretan badaude edo beren kargura adingabeak badituzte.

5. artikulua. Zenbatekoak.

Oinarritzko errentaren zenbatekoa zehazteko, erlazioatuko dira lanbide arteko gutxieneko soldataren ehunekoa –urtero ezarriko da–, diru-sarrera propioak eta familia-unitatea osatzen duten kideen kopurua:

Pertsona 1: lanbide arteko gutxieneko soldataren % 100 bitarte.

2 pertsona: lanbide arteko gutxieneko soldataren % 120.

3 pertsona: lanbide arteko gutxieneko soldataren % 135.

4 pertsona: lanbide arteko gutxieneko soldataren % 145.

5 pertsona: lanbide arteko gutxieneko soldataren % 155.

6 pertsona: lanbide arteko gutxieneko soldataren % 165.

7. pertsonatik aurrera, % 5 gehituko da unitate errenta-hartzaileari gehitzen zaion kide bakoitzeko.

Oinarritzko errentaren zenbatekoa gehituko da familia-unitate eskatzaileari, babes ofizialeko alokairuko etxebizitza batean biziko balitz, legokiokeen diru-laguntzarekin parekagarria den zenbateko batean, kontuan izanda bizi deneko etxebizitzaren metro koadroak, familia-unitate horretako kideen kopurua eta haren egungo diru-sarrerak (urtero alokairuko prezioak eta diru-laguntzak kalkulatzeko argitaratzen den taularen arabera).

Esleitutakoa ez da inoiz ere lanbide arteko gutxieneko soldataren % 10 baino gutxiago izanen.

6. artikulua. Baliabide ekonomiko konputagarriak.

Familia-unitatearen baliabide ekonomikotzat joko dira hilabeteko diru-sarrera guztien eta haren ondarearen batura, honakoak ere bilduta:

1. Lan erregularreko eta irregularreko etekinengatik diru-sarrera garbiak, Oinarritzko Gizarte Zerbitzuek horiek ziur ezagutzen dituztenean.

2. Prestazio eta pentsio aitortuak, funts publiko nahiz pribatuaren kargura finantzatutako gizarte-aurreikuspeneko araubidekoak.

3. Ondare-elementuak ustiatzetik eratorritako diru-sarrerak.

Familia-unitatearen baliabide ekonomikoak konputatzean, ondokoak salbuetsita geldituko dira:

1. Diru-sarrerak:

a) Helburu jakin baterako diru-laguntzak, hala kotzat hartuta larrialdiko laguntzak, etxebizitza erosteko edo alokairu sozialerako laguntzak, bekak, jantokirako eta eskola-garraiorako laguntzak, gizarteratzeko eta laneratzeko proiektuetako pizgarri ekonomikoak eta familia-unitatearen beraiazko behar bat betetzeko emandako beste edozein diru-laguntza.

b) Mendekotasuna duten pertsonak artatzeko laguntzak.

c) Eskatzailearen familia-guneaz kanpoko pertsonen edo eskatzailearen menpekoak diren pertsonen pentsioak edo antzeko prestazioak, lanbide arteko gutxieneko soldataren % 35 bitarte.

d) Gizarte Segurantzak ardurapeko seme-alabengatik ematen dituen prestazioak.

e) Adingabeak babestearen arloan eskuduna den departamentuak adingabeen familia-harrerak eragindako gastuak berdintzeko ematen dituen diru prestazioak.

f) Jada oinarritzko errenta jasotzen ari diren familia-unitateen lan jarduera berrien ondorioz lortutako diru-sarrerak. Diru-sarrera horien kopurua salbuespenak 6 hilabeteko iraupena izanen du gehienez, eta soilik aplikatuko zaie lanbide arteko gutxieneko soldataren % 75etik beherako kopuruei, edo aplikatuko da kontratuaren iraupena hiru hilekoa edo hortik beherakoa denean eta jaso beharreko zenbatekoa lanbide arteko gutxieneko soldataren 1,5ekoaren berdina edo beheragokoa denean.

g) Lanerako ikastegietara joategatik jasotako eskersariak, lanbide arteko gutxieneko soldataren % 50a gainditzen ez dutenean. Salbuetsitako

muga hori gainditzen duten kopuruak diru-sarrera konputagarritzat hartuko dira.

h) Erakunde publikoek sustatutako gizarteratze eta laneratze programetan sartuta dauden 18 urtez beherakoek familia-unitateari egindako ekarpenak, lanbide arteko gutxieneko soldataren mugarekin. Salbuetsitako muga hori gainditzen duten kopuruak diru-sarrera konputagarritzat hartuko dira.

i) Bakarrik bizi denean, gizarte bazterketako egoeran eta gizarteratzeko eta laneratzeko zailtasunekin dagoen pertsona bat bere bizilekurik ez duenean eta bere familia-unitateak hartzen duenean edo anaia-arrebekin edo/eta gurasoekin etxebizitza berean bizitzera joaten denean; deserrotze sozialeko prozesuen ondorioz, besteak beste toxikomaniengatik, gaixotasun mental batengatik edo laneratzea zailtzen dioten bestelako arrazoi batzuegatik, ez dira kontatuko familia-unitate hartzaileen diru-sarrera gisa, unitatea osatzen duten pertsonen legokieken oinarrizko errentaren bi halako bitarte, gehienez ere.

Baldin eta diru-sarrerak oinarrizko errentaren bi halako baino gehiago badira, muga hori gainditzen duen zenbatekoa bizikidetasuneko familia-unitate osatzen duten pertsonen artean hainbanatuko da. Horren emaitza gisa ateratzen den zenbatekoa hartutako pertsonari kontatuko zaio, dagokion oinarrizko errenta zehazte aldera.

j) Familiaren diru-sarreretatik deskontatuko da familia-unitate eskatzaileari, babes ofizialeko alokairuko etxebizitza batean biziko balitz, legokieken diru-laguntzarekin parekagarria den zenbateko batean, kontuan izanda bizi deneko etxebizitzaren metro koadroak, familia-unitate horretako kideen kopurua eta haren egungo diru-sarrerak (urtero alokairuko prezioak eta diru-laguntzak kalkulatzeko argitaratzen den taularen arabera).

2. Ondarea

a) Unitate hartzaileak dauzkan ondasun higigarriak, urteko lanbide arteko gutxieneko soldataren % 50 bitarte.

b) Familia-unitatea gauzatzen ari den barnerrazte prozesua betetzeko behar diren ondasun higigarriak.

c) Ohiko etxebizitza.

d) Familiaren arreoak, salbu eta daukan balioa dela eta nabarmentzen bada behar adina diru baliabide badagoela.

e) Ibilgailuak, guztira 9.000 euro baino gutxiagoko balioa badute. Balorazioa egingen da oinordetzaren, ondare-eskualdaketen eta egintza juridiko

dokumentatuen, zergen eta, bereziki, garraiobide jakin batzuen gaineko zergen kudeaketari aplikatutakoak zaizkion ibilgailu erabilien salmentaren betez besteko prezioak onesten dituen arauaren arabera.

3. Familia-unitatearen baliabide ekonomikoen kalkulua:

a) Hileko diru-sarrerak kalkulatzeko, azken sei hilekoko lan etekinengatik eta ondare-etekinengatik diru-sarreraren batura zati sei egingen da. Ondareari dagokionez, kontuan hartuko da eskaria egiteko unean erabilgarri dagoena.

Familia-unitate batek azken sei hilabeteetan hilabete bakoitzeko legokieken oinarrizko errentaren zenbatekoa baino diru-sarrera txikiagoak izan baditu (haien guztizkoa kalkulatu ondoren eta zati sei egin ondoren), eman beharreko zenbatekoa pertsona eskatzailearen familia-unitateko kide-kopuruarentzat ezarritako zenbatekoaren guztizkoa izanen da.

Familia-unitateak azken sei hilabeteetan hileko diru-sarrera batzuk jaso baditu (haien guztizkoa kalkulatu eta guztizko hori zati sei egin ondoren), legokieken oinarrizko errentaren zenbatekoa halako bat edo halako bi artekoak direnak, eman beharreko oinarrizko errentaren zenbatekoa izanen da familia-unitateak azken sei hilabeteetan izan dituen guztizko diru-sarreraren zenbatekoa ken familia-unitatea osatzen duten kide-kopuruaren arabera sei hilabetez eskuratzekoa litzatekeen oinarrizko errentaren zenbatekoa zati sei hilabete egitearen zatidura.

b) Ez da oinarrizko errentarik emanen hileko diru-sarreraren eta zenbatespenetik salbuetsi ez diren ondasun higigarrien baturak arestian erreferentziako familia-unitaterako ezarri diren kopuruak gainditzen dituzenean.

d) Ez da oinarrizko errentarik emanen familia-unitatearen ondasun higiezinek, ohiko etxebizitza salbuetsita, urteko lanbide arteko gutxieneko soldataren 10 halakoren katastro-balioa gainditzen dutenean. Balio hori kopuru horretatik beherakoa denean, oinarrizko errenta sei hilabeterako emanen da, eta epe horretan ondarea diru bihurtzearen baldintzapean, salbu eta oinarrizko gizarte zerbitzuak beste neurriren bat justifikatzen duenean.

7. artikulua. Oinarrizko errenta jasotzeko aldia

Gizarte politikaren arloan eskuduna den departamentuak emanen du oinarrizko errenta, eta, oro har, sei hilabeteko iraupena izanen du. Aldi hori ondoz ondoko epe berdinetarako luza daiteke, harik eta hasierako errenta-ematea ekarri zuen egoera gainditzen den arte eta arestian aipatutako

helburu eta printzipio inspiratzaileekin bat. Oinarritzko errenta berritzearen kasuan jaso beharreko zenbatekoa ezarriko da hasierako emate-erabakirako ezarri zen irizpide bera erabiliz.

Dagokion oinarritzko gizarte zerbitzuak proposamen arrazoitua emanda, errentaren iraupen epea 12 hilabetetarako luza daiteke.

8. artikulua. Oinarritzko errentaren zenbatekoa aldatzea.

1. Oinarritzko errentaren zenbatekoa aldatu egiten da, baldin eta aldatu egiten bada familia-unitateak dituen kideen kopurua edo prestazioa kalkulatzeko oinarri gisa erabili diren baliabide ekonomikoen zenbatekoa.

2. Oinarritzko errentaren zenbatekoa aldatzeko, kideen kopuru-handitzeak gutxienez ere hilabete iraun beharko du, eta kideen kopuru-txikitzeak, hiru hilabete baino gehiago.

3. Barneratze-ibilbideen fase askotan gertatzen den ezegonkortasuna dela eta, oinarritzko errentaren zenbatekoa aldatu ahal izateko, familia-unitatearen baliabide-gehikuntza kontuan hartuko da:

a) Hiru hilabetez baino gehiagoz denean.

b) Arrazoizko modu batean aurreikusten denean epe hori baino iraupen luzeagoa izatea (lan kontratu bat sinatu delako, familia-ondarea handitu delako edo egonkortasun berme bera edo berme handiagoa duen beste inguruabar batengatik).

4. Oinarritzko errentaren titularra den pertsonak bere egoera ekonomiko edo familiarra aldatu izatearen berri eman beharko dio oinarritzko gizarte zerbitzuari, eta azken horrek Gizarte Politiketako Departamentuari igorriko dio alegatutako arrazoiak frogatzen dituen dokumentazioa, bai eta, beharrezkotzat jotzen badu, txosten arrazoitu bat ere, non oinarritzko errentaren kopurua aldatzea proposatuko baita.

5. Oinarritzko errentaren aldaketa gauzatzeko da haren arrazoia sortu eta hurrengo hilabeteko lehenengo egunetik aurrera.

9. artikulua. Errenta jasotzen duten pertsonen eskubideak.

Gizarteratzeko eta laneratzeko ibilbide pertsonalizatu bat –oinarritzko gizarte zerbitzuen edo gizarteratze eta laneratzeko lantaldeen artean adostua– ezar dakiela pertsonak daukaten eskubide bat da, eta hura eskatzen denean, administrazioak haren betetze efektiboa ziurtatu beharko du, horretarako behar diren baliabide teknikoak jarritz. Oinarritzko errenta da ibilbide honetan eska daitekeen baliabideetako bat.

Gizarte Zerbitzuei buruzko abenduaren 14ko 15/2006 Foru Legean jasotako eskubideak eta Gizarte Zerbitzu Orokorren Zorroa onesten duen ekainaren 17ko 69/2008 Foru Dekretuan oinarritzko errentari dagokionez ezarritako bermeak.

10. artikulua. Oinarritzko errenta jasotzen duten pertsonen betebeharrak.

1. Oinarritzko errenta zertarako eman zaien, hartarako erabiltzea.

2. Nafarroan modu efektibo eta jarraituan bizitza prestazioa jasotzen den epe guztian; oinarritzko errenta hartzen duen familia-unitateko pertsona bat edo pertsona batzuk foru erkidegotik atera daitzeko urtebetean hilabete baino luzeagoa ez den aldi batez, betiere hori aurrez jakinarazita kasuko oinarritzko gizarte zerbitzuari. Era berean, egoitza Nafarroan izateko baldintza ez dela eten joko da irteera Europako Esparru Ekonomikoko herrialdeetara edo Suitzara egiten denean, lana bilatzeko edo lan egiteko, lanbidean trebatzeko edo nazioarteko lankidetzarako; betiere, egonaldiak 90 eguneko baino laburrago izan beharko du.

3. Eskatzea, oinarritzko errenta jasotzen ari diren denbora guztian, familia-unitateko edozeinen eskubidekoa den prestazio ekonomiko oro.

4. Egiazko datuak ematea egoera pertsonal eta familiarri buruz eta haietan gertatzen den edozein aldaketa jakinaraztea hogeit eguneko epean.

11. artikulua. Oinarritzko errentaren eskaria.

Oinarritzko errenta deitutako prestazio ekonomikoa eskuratzeko espediente oro interesdunaren eskabidearekin hasiko da; eskabideak Gizarte Politiketako Departamentuan aurkeztuko dira, eredu normalizatuan eta behar den dokumentazioarekin batera.

Eskabideak Oinarritzko Gizarte Zerbitzuetan aurkeztuko dira, edo Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erki-dearen Legean ezarritako tokietan.

Eskabidearekin batera, honako agiriak aurkeztu beharko dira:

1. Eskabide eredu normalizatua, interesdunak sinatua. Honakoak jasoko ditu:

a) Diru-sarreraren eta ondarearen gaineko zinpeko/ardurapeko aitortpena.

b) Etxebizitza berean elkarrekin bizi diren pertsonen eta eskatzailearekiko harremanari buruzko zinpeko/ardurapeko aitortpena.

d) Eskatzailearen konpromisoa, oinarritzko gizarte zerbitzuari bere egoera ekonomikoan edo

familia-unitatearen osaeran gertatutako edozein aldaketa hogeitaz laneguneko epean jakinaraztekoa, baldin eta aldaketak baliabide ekonomikoen zenbaketari edo jaso beharreko diru-kopuruaren kalkuluari eragiten badio.

e) Eskatzailearen konpromisoa, ezinbestean foru erkidegotik aldi baterako irten baino lehen oinarrizko gizarte zerbitzuari horren berri ematekoa, eta itzultzerakoan, ahal bezain laster, irteera horretarako arrazoen egiaztagiriak aurkeztea.

2. Eskatzailearen eta familia-unitateko gainontzeko kideen Nortasun Agiri Nazionalaren, Atzerriarren Identifikazio Zenbakiaren edo pasaportearen fotokopia (halakorik eduki behar dutenena) eta Familia Liburuarena –edo dokumentu baliokidea–ren atzerriko jatorria duten pertsonen kasuan–, baldin eta jada jasota ez badaude oinarrizko gizarte zerbitzuaren familia-espedientean.

3. Banantze edo dibortzioari buruzko hitzarmen arau-emailea edo epai judiziala eta, kasua bada, ezarritako pentsioa ez ordaintzeagatik abiarazitako akzio judizialak, baldin eta jada jasota ez badaude oinarrizko gizarte zerbitzuaren familia-espedientean.

4. Erroldatzearen ziurtagiria edo zuzenbidean onartutako edozein modutan Nafarroan egoitza izatearen antzinatasuna egiaztatuko duen dokumentua, prestazioa eskatu aurreko 12 hilabetei dagokienez eta familia-unitateko gainerako kideei dagokienez.

5. Bizikidetasun-ziurtagiria, zeinetan jasoko baitira etxebizitza berean elkarrekin bizi diren pertsona guztiak.

6. Errenten eta ondarearen dokumentu bidezko justifikazioa (nominak, prestazioak, pentsioak, subsidioak, kalte-ordainak, katastroko ziurtagiriak), familia-unitateko kide guztiena, oinarrizko errentaren eskaria aurkezteko dataren aurreko sei hilabetei dagokienez.

7. Diru-sarrerak dakartzaten bestelako jarduerak egiten badira, ardurapeko aitortpena, non zehaztuko baita zein den garatutako jarduera, horretan zenbat denbora ematen den eta nolako intentsitatearekin, eta familia-unitateko kide guztiak oinarrizko errentaren eskaria aurkeztu zen egunaren aurreko sei hilabeteetan lortutako diru-sarreen guztizko zenbatekoa.

8. Familia-unitatea osatzen duten pertsona guztiei egoki lekizkiekeen laguntza, prestazio, pentsio edo subsidioak eskatu izatearen dokumentu bidezko justifikazioa.

Oinarrizko errenta eskatzen duten pertsonak ez badute helbide iraunkorrik, eskaeraren izapideak egiten dizkien oinarrizko gizarte zerbitzuan jarriko dute helbidea foru lege honen eraginetarako, eta bertan jasoko dute haren ebazpena.

12. artikulua. Izapidetzea

1. Oinarrizko errentarako eskarien izapidetzea oinarrizko gizarte zerbitzuei eta Gizarte Politiketako Departamentuko Gizarteratze Atalari egokitu zaie.

2. Eskaria oinarrizko gizarte zerbitzuan sartu eta hurrengo 20 egun naturaleko gehieneko epean, eskatzaileak dagokion dokumentazioa osatuko du eta oinarrizko gizarte zerbitzuak hura igorriko dio Gizarte Politiketako Departamentuari. Hartara, hasiera ematen zaio oinarrizko errenta kudeatzeko prozedura administratiboari, eskaria oinarrizko gizarte zerbitzu horretan egiten den egunetik (betiere, interesdunak behar den epean dokumentazio hori osatu baldin badu).

Oinarrizko gizarte zerbitzuak eskariarekin batera dagokion txosten soziala aurkeztu beharko du, ezartzen den eredu normalizatuaren arabera, eta gutxienez ere honako edukiak jasoko ditu:

a) Eskaria egiteko unean nahitaez aurkeztu beharreko dokumentuetan jasotako datuak –oinarrizko gizarte zerbitzuaren familia-espedientean sartuko dira horien fotokopiak– eta familia-unitatea osatzen duten pertsonen egiazko bizikidetasunari buruzko beste datu batzuk.

b) Udal-eroldan jasotako datuak edo bizilekua baldintzaren betetzea frogatzen duten bestelako datu batzuk.

c) Bazterkeria sozialeko egoeraren edo egoera horretan egoteko arriskuaren deskribapena eta balorazioa, bizitako bazterkeria-inkorporazio prozesua, laneratze- eta gizarteratze-prozesu baten premia (ala premiarik eza) eta horren aurreko jarrera pertsonala.

d) Oinarrizko gizarte zerbitzuak zuzenenean nahiz zeharka ikasitako beste datu batzuk, ekonomia-beharrizaneko egoerari buruzkoak.

3. Gizarte Politiketako Departamentuak egiaztatuko ditu Ekonomia eta Ogasun Departamentuan dauden datuak, eskatzailearen familia-unitatearen diru-sarreei eta ondareari buruzkoak, bai eta edozein administrazioren eskuetan dauden datuak, haren behartasun egoera baloratzeko interesekoak izan daitezkeenak.

4. Aurkeztutako dokumentazioan akatsak edo kontraesanak antzematen baldin badira, bai oinarrizko gizarte zerbitzuak, bai aipatutako departa-

mentuak, eskatzaileari eskatu ahalko diote 10 eguneko epean aurkez ditzan espedientea osatzeko beharrezkotzat jotzen diren datuak edo dokumentuak, eta ohartaraziko diote hori egin ezean joko dela eskaerari uko egin diola eta espedientea beselako izapiderik gabe artxibatuko dela.

13. artikulua. Oinarrizko errentaren ebazpena, sortzapena eta ordainketa.

Eskariak ebaztea gizarte politikaren arloan eskuduna den departamentuaren ardura izanen da.

Prestazioa emanen da Gizarte zerbitzu orokorren zorroa onesten duen 69/2008 Foru Dekretuan ezarritakoaren arabera; izan ere, hartan 45 eguneko gehieneko epea ezartzen da eskaria aurkezten denetik; edo 30 eguneko epea, berriz, onuraduna indarkeria sexistaren biktima den emakume bat baldin bada. Epe horretan jakinarazpenik ez jasotzeak eskaria baietsi dela esan nahiko du, zeren eta eskatutako prestazioa eskubide subjektibo bati buruzkoa baita.

Oinarrizko errentaren prestazioa oinarrizko gizarte zerbitzuan aurkeztu eta hurrengo hilabeteko lehenengo egunetik sortuko da, baldin eta, gainera, eskatzaileak arestian ezarritako 20 eguneko epean eskariarekin batera aurkeztu badu pertsona onuradunek ezinbestez aurkeztu beharreko dokumentazio osoa, ezarritakoaren arabera. Horri dagokionez, eragin horietarako ez da kontuan hartuko txosten soziala departamentu horretan zein egunetan sartzen den, eta ez da kontuan hartuko, ezta ere, zein egunetan sartzen den pertsona interesdunari geroago eskatzen zaion argitasunetarako dokumentazio osagarria.

Ordainketa egiten da eskatzen duen pertsonak aukeraturiko kontu korrontean edo aurrezki-libretan, kasuko hilabetea amaituta.

Oinarrizko gizarte zerbitzuak proposatuta, eta prestazioaren titularraren onespren esplizituarekin, ordainketa honakoei egin ahalko zaie:

a) Ostatu hartuta dagoen establezimenduaren ardura edo titularitatea duen erakundeari.

b) Gizarteratze- eta laneratze-prozesuan laguntzen ari den entitate publiko edo gizarte-ekimenekoari.

Administrazio eskudunak lehenbiziko ordainketa egin beharko du eskaera jaso eta hilabeteko epean. Hori horrela, eskabideak laster ebazteko, behar diren giza baliabideak eta baliabide materialak jarriko ditu Administrazioak. Eskabideak ez badira hilabete baino lehen ebatzi, ordainketa modu automatikoan egiten da, baldin eta oinarriz-

ko gizarte zerbitzuaren proposamena aldekoa bada, eta gero egiten dira egin beharreko zuzenketak.

14. artikulua. Titularitatea aldatzea.

Gizarte Politiketako Departamentuak prestazioaren titularitate aldaketa erabaki ahalko du, familia-unitateko beste kide baten alde, honako kasu hauetan:

Titularra hilez gero.

Titularra barnetegi moduan ingresatuta badago osasun erakunde batean, erakunde sozial batean edo espetxe batean, prestaziorako aurreikusten den denborarako edo gehiagorako

Gizarteratze eta laneratze akordioaren jarraipena egiten duen oinarrizko gizarte zerbitzuak edo/eta gizarteratze edo laneratze lantaldeak proposamen arrazoitua egiten duenean.

15. artikulua. Etetea.

1. Kautelazko etetea egin ahalko da prestazioa berrikusten ari den bitartean, iraungipenerako jasotako kasuren bat gertatu izatearen zantzueta oinarrituta.

2. Arloko departamentu eskudunak oinarrizko errentari eusteari edo hura eten edo iraungipenari buruz ebatziko du kautelazko etetea erabaki eta 30 eguneko epean.

16. artikulua. Oinarrizko errentarako eskubi-dea iraungitzea.

Honako kasuetan erabaki beharko da:

1. Errenta eman zuen ebazpenean ezarritako epea amaitu eta berritze-eskaera egin ez bada.

2. Prestazioa emateko kontuan hartutako baldintzak aldatu badira, halako moduz non errenta jasotzeko baldintzak ez diren betetzen, oinarrizko gizarte zerbitzuak edo gizarte politikaren arloko departamentu eskudunak egindako balorazioaren arabera.

3. Prestazioa jasotzeko eskatzen diren inguruabarrei edo baldintzei buruzko informazio faltsua emateagatik edo informazioa ezkatutzeagatik.

Oinarrizko errentaren iraungitzea haren arrazoa sortu eta hurrengo hilabeteko lehenengo egunetik aurrera gauzatuko da. Oinarrizko errentaren iraungitzea komunikatzerakoan izandako atzerapenaren ondorioz epe horretan ordainketarik egin baldin bada, ordainketa horiek itzuli beharko dira.

Xedapen indargabetzailea. Indarrrik gabe uzten dira foru lege honetan ezarritakoari aurka egiten dioten maila bereko edo baxuagoko xedapen guz-

tiak; bereziki, Gizarteratze Errenta arautzen duen urtarrilaren 23ko 1/2012 Foru Legea eta hura garatzen duten xedapenak –besteak beste, 58/2012 Foru Agindua, gizarteratze errentaren ohiz kanpoko eta berritze bereziko kasuak arautzen dituena, eta Gizarte Politika, Berdintasun, Kirol eta Gazteriko kontseilariaren otsailaren 9ko 57/2012 Foru Agindua, gizarteratzeko eta laneratzeko eta enple-

gagarritasuna hobetzeko laguntza arautzen duena–.

Azken xedapena. Indarra hartzea.

Foru lege honek Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitara eman eta biharamunean hartuko du indarra.

Foru Lege proposamena, Nafarroan Merkataritza arautzen duen uztailaren 12ko 17/2001 Foru Legeko 33. artikuluko 2. idatz-zatia aldatzen duena.

AURKEZTUTAKO ZUZENKETAK

Legebiltzarreko Erregelamenduko 130. artikuluan ezarritakoa betez, Nafarroan Merkataritza arautzen duen uztailaren 12ko 17/2001 Foru Legeko 33. artikuluko 2. idatz-zatia aldatzen duen Foru Lege proposamenari aurkezturiko zuzenketa Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara daitezen agindu dut. Proposamen hori 2012ko azaroaren 12ko 93. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2013ko otsailaren 22an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

1. ZUZENKETA

UNIÓN DEL PUEBLO NAVARRO

PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA

Artikulu bakarra aldatzeko zuzenketa.

32. artikulua testurako proposamena

“32. artikulua. Lanegunetako ordutegia.

Merkataritza-establezimenduak lanegunetan irekitzeko eta ixteko ordutegia, zeinak egunean gehienez ere hamabost orduko lanaldia ezarriko baitu, merkataritza bakoitzak libreki hautatuko du, betiere lan-araubidean langileei aitorturiko eskubiak ezertan kaltetu gabe.

Saltokiek asteko lanegunetan beren jarduera garatzeko izanen duten ordutegi orokorrak ezin izanen du laurogeita hamar orduko kopurua gaintu.”

2. ZUZENKETA

UNIÓN DEL PUEBLO NAVARRO

PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA

Artikulu bakarra aldatzeko zuzenketa.

33. artikulua testurako proposamena

“33. artikulua. Igande eta jaiegunetan irekitzea.

1. Igandeak eta jaiegunak ez dira egun baliodunak izanen Nafarroako Foru Komunitatean merkataritza-jardueran aritzeko, berariaz baimendutakoak izan ezik.

2. Merkataritzaren arloan eskumenak dituen departamentuak urtero, Nafarroako Merkataritzaren Kontseiluari entzun ondoren, hurrengo urteko egutegia ezarriko du, horren barne direla egun balioduntzat hartuko diren igandeak eta jaiegunak. Hamar izanen dira egun balioduntzat joko diren igande eta jaiegunak.

3. Egutegia departamentu horrek aldatu ahal izanen du, interesdunak diren udalek, bi hilabeteko aurrerapenarekin, norbere udal dermiorako eskari arrazoitu bat aurkeztuta.

4. Merkataritza-establezimenduak igande eta jaiegun baimenduetan irekitzeko eta ixteko ordutegia, zeina gehienez ere hamabost ordukoa izanen baita, merkataritza bakoitzak libreki hautatuko du, betiere lan-araubidean langileei aitorturiko eskubiak ezertan kaltetu gabe.”

3. ZUZENKETA

**NAFARROAKO PARLAMENTUKO
PARLAMENTU-TALDE POPULARRAK
AURKEZTUA**

17/2001 Foru Legeko 33. artikuluko 1. idatzatua aldatzeko zuzenketa. Hona testua:

“1. Nafarroako Foru Komunitatean, igande eta jaiegunak ez dira baliodunak izanen merkataritza jarduerarako, arloko eskumen berekien eta Estatu-ko oinarritzko arauen barabera espresuki baimendurikoak salbu.”

Zioak: Arauan aipamen bat sartzea Estatu-ko eta autonomia erkidegoetako eskumenei buruz.

4. ZUZENKETA

**NAFARROAKO PARLAMENTUKO
PARLAMENTU-TALDE POPULARRAK
AURKEZTUA**

Artikulu bakarraren lehenengo esaldia aldatzeko zuzenketa. Honako testu hau izanen du:

“2. Merkataritzaren arloan eskumenak dituen departamentuak, urteroko irailaren 1a baino lehen, Nafarroako Txikizkako Merkataritzaren Behatokiari entzun ondoren, hurrengo urteko egutegia ezarriko du, horren barne direla egun balioduntzat hartuko diren igandeak eta jaiegunak.”

Zioak: Araua argiago uztea.

5. ZUZENKETA

**NAFARROAKO PARLAMENTUKO
PARLAMENTU-TALDE POPULARRAK
AURKEZTUA**

Artikulu bakarraren lehenengo esaldia aldatzeko zuzenketa. Honako testu hau izanen du:

“2. Merkataritzaren arloan eskumenak dituen departamentuak, urteroko azaroaren 1a baino lehen, Nafarroako Txikizkako Merkataritzaren Behatokiari entzun ondoren, hurrengo urteko egutegia ezarriko du, horren barne direla egun balioduntzat hartuko diren igandeak eta jaiegunak.”

Zioak: Lege proposamenean planteatutako data egokia ez izatea, praktikotasun gutxi duelako.

Izan ere, planteatutako data ez da lege indardunean betetzen:

2013: egutegia 2012ko abenduaren 17an argitaratu zen NAOn, eta behatokia azaroaren 16an bildu zen.

2012: egutegia 2011ko abenduaren 16an argitaratu zen NAOn, eta behatokia azaroaren 15ean bildu zen.

2011: egutegia 2010eko abenduaren 31n argitaratu zen NAOn, eta behatokia abenduaren 23an bildu zen.

6. ZUZENKETA

**NAFARROAKO PARLAMENTUKO
PARLAMENTU-TALDE POPULARRAK
AURKEZTUA**

Artikulu bakarraren azken esaldia aldatzeko zuzenketa. Honako testu hau izanen du:

“Hamar izanen dira balioduntzat joko diren igande eta jaiegunak.”

Zioak: Nafarroako araua egokitzea Estatu-ko oinarritzko legedian baimendutako igandeen gutxi-eneko kopuruari.

7. ZUZENKETA

**NAFARROAKO PARLAMENTUKO
PARLAMENTU-TALDE POPULARRAK
AURKEZTUA**

Artikulu bakarrari lerrokada berri bat gehitzeko zuzenketa. Hona testua:

“Igande eta jaiegunetan irekitzeko datak ezar-tzerakoan, kontuan hartuko dira merkataritzaren sektorean adostasun handiena lortzen den egunak, bai eta kontsumitzailearentzat baliagarrienak direnak ere. Horri dagokionez, honakoak izanen dira aplikatuko diren irizpideak:

a) Eguberri kanpainako igande eta jaiegunetan irekitzea.

b) Merkealdietako igande eta jaiegunetan irekitzea.

c) Jaiegun batean irekitzea bi edo jaiegun gehiago elkarren ondoan daudenean. d) Bi igandetan jarraian ez irekitzea.

Zioak: Irizpideak aplikatzea igande eta jaiegunetan irekitzeko datak finkatzeko, bai kontsumitzaileen ikuspuntutik, bai merkataritzaren arloko langileen ikuspuntutik.

8. ZUZENKETA**NAFARROAKO PARLAMENTUKO
PARLAMENTU-TALDE POPULARRAK
AURKEZTUA**

17/2001 Foru Legeko 33. artikuluko 3. idatz-zatia aldatzeko zuzenketa. Hona testua:

“3. Egutegia departamentu horren foru agindu baten bidez aldatu ahal izanen da, interesdunak diren udalek beren udal dermioetarako, bi hilabete aurrerapenarekin, eskari arrazoitu bat aurkeztuta. Udalek gehienez ere 2 jaiegun aldatu ahalko dituzte egutegian ezarritakoetatik.”

Zioak: Udalen ekimenez alda daitezkeen jaiegunen kopurua mugatzea.

9. ZUZENKETA**UNIÓN DEL PUEBLO NAVARRO
PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA**

Artikulu bakarra aldatzeko zuzenketa.

46. artikulua testurako proposamena

“46. artikulua. Merkealdiko salmenta.

1. Merkealdiko salmentatzat joko da jendeari salmenta aurretik finkatutako prezioa baino merkeago eskaintzen zaizkion salgaiena.

2. Merkealdiko salmentak egin ahalko dira merkataritza interes handiena duten sasoietan, merkatarien eta haien ordezkarien irizpidearen arabera.

Horretarako, merkataritzaren arloko eskumenak dituen departamentuak, Nafarroako Merkataritzaren Kontseiluarekin adostuta, sasoi horiek adieraziko ditu urtero.

3. Merkealdian ezin izanen dira eskaini:

a) Salgai zaharkituak; horrek ez du eragotziko saltokian bertan horiek saldo gisa saltzea.

b) Hondatuta dauden salgaiak.

4. Merkealdiko salgaiak saltokiak lehenago bere ohiko eskaintzan salgai izan dituenen artekoak izanen dira.”

10. ZUZENKETA**NAFARROA BAI
PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA**

Artikulu bat gehitzeko zuzenketa.

“Artikulu berria. 46.2 artikulua aldatzen da.

2. Merkealdiko salmenta merkatarien irizpidearen arabera finkatuko da, eta hark libreki erabakiko du haren iraupena, honako parametroei erreparatuta:

– Merkealdiak urtean bi denboralditan egin ahalko dira; bata urte hasieran eta bestea udan, usadio eta ohiturei eta salmenta handieneko epeei jarraikiz.

– Merkealdi horiek gutxienez astebete eta gehienez bi hilabete iraunen dute.

– Denboraldi bakoitzearen hasierako eta amaierako datak foru aginduz finkatuko ditu Nafarroako Gobernuako departamentu eskudunak.

– Merkatarari bakoitzak foru aginduko irizpideei jarraikiz hautatzen dituen merkealdi egunak saltoki bakoitzaren kanpoaldean adierazi beharko dira, saltokia itxita dagoenean ere jendeak ikusteko moduan.

11. ZUZENKETA**UNIÓN DEL PUEBLO NAVARRO
PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA**

Xedapen gehigarriak gehitzeko zuzenketa

Xedapen gehigarrien proposamena

Lehenengo xedapen gehigarria. Nafarroako Txikizkako Merkataritzaren Behatoki Aholku-emailea.

Foru lege honek indarra hartzen duenetik, Nafarroako Txikizkako Merkataritzaren Behatoki Aholku-emaileak Nafarroako Merkataritzaren Kontseilua izena hartuko du.

Bigarren xedapen gehigarria. Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioako departamentuen aipamenak.

Ulertuko da merkataritzaren arloko eskumenak dituen departamentuari dagozkiola Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioako departamentuen aipamenak, Nafarroako Merkataritza arautzen duen uztailaren 12ko 17/2001 Foru Legeko 36.2 artikuluan eta bosgarren xedapen gehigarrian jasotakoak.

12. ZUZENKETA**UNIÓN DEL PUEBLO NAVARRO
PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA**

Xedapen indargabetzaile bat gehitzeko zuzenketa.

“Xedapen indargabetzaile bakarra. Arau-indargabetzea.

Indargabetu egin dira foru lege honetan xedatutakoaren kontrakoak diren maila bereko edo apalagoko xedapen guztiak”

13. ZUZENKETA

UNIÓN DEL PUEBLO NAVARRO
PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA

Amaierako xedapenak gehitzeko zuzenketa:

“Azken xedapenetan lehena. Erregelamenduak emateko ahalmena.

Nafarroako Gobernuari ahalmena ematen zaio foru lege hau garatu eta betearazteko beharrezkoak diren erregelamenduzko xedapen guztiak emateko.

Azken xedapenetan bigarrena. Indarra hartzea.

Foru lege honek Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta biharamunean hartuko du indarra.”

E saila:
JABELDURAK, MOZIOAK ETA ADIERAZPEN POLITIKOAK

Mozioa. Horren bidez, Osasun Departamentua premiatzen da “Mediterránea de Catering” enpresarekin sinatutako kontratua indargabetu edo administratiboki desegin dezan.

OSASUN BATZORDEAK BAZTER UTZIA

Bildu-Nafarroa eta Nafarroa Bai parlamentu-taldeek ondoko mozioa aurkeztu zuten: “Mozioa. Horren bidez, Osasun Departamentua premiatzen da “Mediterránea de Catering” enpresarekin sinatutako kontratua indargabetu edo administratiboki desegin dezan”

Legebiltzarreko Osasun Batzordeak, 2013ko otsailaren 22an egindako Osoko Bilkuran, erabaki zuen aurkeztutako mozioa baztertzea. Mozio hori 2013ko otsailaren 11ko 16. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2013ko otsailaren 25ean

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

F saila:
GALDERAK

Galdera, jakitekoa zer proposatzen duen eta zer jarrera daukan Gobernuak Nafarroako ehiza-barrutietan barrutizaina eduki beharrari eta haren eginkizunei dagokienez.

MARISA DE SIMÓN CABALLERO ANDREAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2013ko otsailaren 25ean egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Marisa de Simón Caballero andreak aurkeztutako gaurkotasun handiko galdera, jakitekoa zer proposatzen duen eta zer jarrera daukan Gobernuak Nafarroako ehiza-barrutietan barrutizaina eduki beharrari eta haren eginkizunei dagokienez.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Hurrengo Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2013ko otsailaren 25ean

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

GALDERAREN TESTUA

Izquierda-Ezkerra parlamentu-taldeko foru parlamentari Marisa de Simón Caballerok, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, gaurkotasun handiko ondoko galdera egin du, hurrengo Osoko Bilkuran ahoz erantzuteko:

Nafarroako Ehizari eta Arrantzari buruzko 17/2005 Foru Legeko 51. artikulua ezartzen du Nafarroako ehiza barrutietan zaintza sistema bat egon beharra dagoela. Bada, artikulua horren aplikazioa dela-eta hainbat moratoria onetsi dira. Azken moratoria bukatu da eta, hortaz, betebeharrori aginduzkoa da une honetan Nafarroako barruti guztientzat.

Gobernuak Ehizari buruzko Legean ezarritakoa mantentzea erabaki ostean eta, horrenbestez, ehiza-barrutietako titularrek edo kudeatzaileek barrutizain bat eduki beharra gauzatu ostean, eta hedabideetan agertu denez gero Landa Garapen, Ingurumen eta Toki Administrazioako Departamentuaren asmoa dela legea kontrako bidean aldatzea, hauxe jakin nahi dugu:

Gobernuak zer proposatzen du eta zer jarrera dauka Nafarroako ehiza-barrutietan barrutizaina eduki beharrari eta haren eginkizunei dagokienez?

Iruñean, 2013ko otsailaren 22an

Foru parlamentaria: Marisa de Simón Caballero

Galdera, Nafarroako ospitalegunean izandako dieta-kutsadurako kasuei buruzkoa.

ROBERTO JIMÉNEZ ALLI JAUNAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2013ko otsailaren 25ean egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Roberto Jiménez Alli jaunak aurkeztutako gaurkotasun handiko galdera, Nafarroako ospitalegunean izandako dieta-kutsadurako kasuei buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Hurrengo Osoko Bilkuran izapidetzeta.

Iruñean, 2013ko otsailaren 25ean

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

GALDERAREN TESTUA

Socialistas de Navarra parlamentu-taldeko parlamentari Roberto Jiménez Allik, Legebiltzarreko

Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, gaurkotasun handiko ondoko galdera aurkeztu du, heldu den otsailaren 28ko Osoko Bilkuran ahoz erantzuteko:

Galderaren testua

- Osasuneko kontseilariak zergatik ez zituen aipatu orain dela gutxi egindako agerraldian, zein ospitaleguneko sukaldean funtzionamenduari buruz hitz egin baitzen, ospitaleko dieta-kutsadurako kasuak?

- Zenbat kasu gertatu dira eta zer ondorio izan dituzte?

- Zer neurri hartu dira?

Iruñean, 2013ko otsailaren 25ean

Foru parlamentaria: Roberto Jiménez Alli

Galdera, jakitekoa zer balorazio egiten duen Nafarroako Gobernuak Gobernuko lehendakari ohi Miguel Sanz jaunaren adierazpen publikoei buruz, zeinetan uko egiten baitzion Nafarroako Kutxan berak egindako kudeaketaren gaineko azalpenak emateari Parlamentuan.

MAIORGA RAMÍREZ ERRO JAUNAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2013ko otsailaren 25ean egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Maiorga Ramírez Erro jaunak aurkeztutako gaurkotasun handiko galdera, jakitekoa zer balorazio egiten duen Nafarroako Gobernuak Gobernuko lehendakari ohi Miguel Sanz jaunaren adierazpen publikoei buruz, zeinetan uko egiten baitzion Nafarroako Kutxan berak egindako kudeaketaren gaineko azalpenak emateari Parlamentuan.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Hurrengo Osoko Bilkuran izapidetzeta.

Iruñean, 2013ko otsailaren 25ean

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

GALDERAREN TESTUA

Bildu-Nafarroa parlamentu-taldeko foru parlamentari Maiorga Ramírez Errok, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, gaurkotasun handiko ondoko galdera aurkeztu du, Nafarroako Gobernuak Osoko Bilkuran ahoz erantzun dezan:

Nafarroako Gobernuak zer balorazio egiten du Nafarroako Gobernuko lehendakari ohi Miguel Sanz jaunaren adierazpen publikoei buruz, zeinetan erdeinuz uko egiten baitzion Nafarroako Kutxan berak egindako kudeaketaren gaineko azalpenak emateari Parlamentuan?

Iruñean, 2013ko otsailaren 25ean

Foru parlamentaria: Maiorga Ramírez Erro

Galdera, 2013rako aurrekontuen proiektuan aurreikusita zeuden eta luzatutako aurrekontuetan jaso ezin izan diren gaiei buruzkoa.

GAURKOTASUN HANDIKO GALDERA GISA IZAPIDETZEA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2013ko otsailaren 25ean egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Xedatzea Juan Carlos Longás García jaunak aurkeztutako galdera, 2013rako aurrekontuen proiektuan aurreikusita zeuden eta luzatutako aurrekontuetan jaso ezin izan diren gaiei buruzkoa,

Osoko Bilkuran izapidetuko dela gaurkotasun handiko galdera gisa. Galdera 2013ko otsailaren 11ko 16. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

2. Erabaki hau Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

Iruñean, 2013ko otsailaren 25ean

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

H saila:
BESTELAKO TESTU ARAU-EMAILEAK

1/2013 Legegintzako Foru Dekretua, otsailaren 13koa, Tributu Harmonizazioari buruzkoa, Balio Erantsiaren gaineko Zergari buruzko abenduaren 30eko 19/1992 Foru Legea aldatzen duena.

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2013ko otsailaren 18an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, hurrengo erabakia hartu zuen, besteak beste:

Ikusita otsailaren 13ko 1/2013 Legegintzako Foru Dekretua, Tributu Harmonizazioari buruzkoa, Balio Erantsiaren gaineko Zergari buruzko abenduaren 30eko 19/1992 Foru Legea aldatzen duena, eta kontuan harturik Nafarroako Gobernari eta Lehendakariari buruzko 14/2004 Foru Legearen 54. artikuluan eta Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduen 162. artikuluan xedatutakoa, hona ERABAKIA:

1. Adieraztea otsailaren 13ko 1/2013 Legegintzako Foru Dekretuaren berri izan duela, Tributu Harmonizazioari buruzkoa, Balio Erantsiaren gaineko Zergari buruzko abenduaren 30eko 19/1992 Foru Legea aldatzen duena.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

Iruñean, 2013ko otsailaren 18an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

1/2013 Legegintzako Foru Dekretua, otsailaren 13koa, Tributu Harmonizazioari buruzkoa, Balio Erantsiaren gaineko Zergari buruzko abenduaren 30eko 19/1992 Foru Legea aldatzen duena

Estatuaren eta Nafarroako Foru Komunitatearen arteko Hitzarmen Ekonomikoaren 32. artikulua xedatzen duenez, Nafarroako Foru Komunitateak, balio erantsiaren gaineko zergaren esparruan bere tributu-ahalmena erabiliz, Estatuan unean-unean indarra duten oinarriko printzipio, funtsezko arau eta arau formal berak aplikatu behar ditu;

hala ere, aitorpena eta diru-sarrerak egiteko bere ereduak onesten ahalko ditu.

Nafarroako Gobernuari eta Lehendakariari buruzko abenduaren 3ko 14/2004 Foru Legeak, 54.1 artikuluan, Nafarroako Gobernuaren araugintzarako ahalmena erregulatzean ezartzen duenez, tributu-araubide erkidearen aldaketa batek behar izan badu, Hitzarmen Ekonomikoan ezarritakoarekin bat, Estatuan indarra duten arau funtsezko eta formazko berberak Foru Komunitatean aplikatzera, Nafarroako Gobernuak tributu arloko foru legeak aldatzeko behar diren foru lege mailako arauak eman ditzake, Nafarroako Parlamentuak eskuordeturik. Aipatu 14/2004 Foru Legearen 54.2 artikuluan xedatutakoari jarraikiz, Nafarroako Gobernuaren xedapenei, aipatu legegintzarako eskuordetzearen ondorio direnean, "tributu harmonizazioari buruzko foru dekretu" izena eman zaie.

Abenduaren 27ko 16/2012 Legeak, finantza publikoak sendotu eta jarduera ekonomikoa bultzatzeko zenbait tributu neurri hartzen dituenak, eta abenduaren 27ko 17/2012 Legeak Estatuako 2013ko Aurrekontu Orokorrei buruzkoak, aldaketak egin dituzte zenbait zergatan, besteak beste balio erantsiaren gaineko zergan, helburu nagusi batekin, alegia, barruko antolamendua Europar Batasuneko araudira eta jurisprudentziara egokitzea; hori dela eta, beharrezkoa da foru legerian ere egokitzea.

Horrela, arau horiek ezartzen dute berariaz ondasun erkidegoek sustatutako higiezinak erkidegoko kideei esleitzea ondasun entregatzat hartuko dela, haien partaidetza kuotaren proportziorik.

Bigarrenik, finantza errentamenduetako eroste-ko aukeraz baliatzean egindako eraikin entregetan salbuespenak mugatzen dira, gutxienez hamar urteko iraupeneko kontratua dutenetara.

Horrez gain, salbuespenak aldatu dira legez aitortutako irabazi asmorik gabeko erakundeek edo entitateek beren kideei zuzenean ematen dizkieten zerbitzuetan, bai eta interes ekonomikoko batasunek eta elkarteek beren kideei emandakoe-tan ere.

Izaera sozialeko entitateen kasuan, izaera alde zurratik aitortu behararen orde, borondatezko eskaera egiten da, eta salbuespenak aplikatu dira kalifikazioa lortu ala ez.

Batasunaren barruko zenbait eragiketaren sorrarazpen kasuak aldatu dira, eta adierazten da eragiketa horietan, oro har, sorrarazpena gertatu-ko dela bidalketa edo garraioa egin eta hurrengo hilabeteko 15ean, baina faktura lehenago luzatzen bada sorrarazpena bidalketarekin batera egiten da.

Bestalde, zerga-oinarriaren esparruan ezartzen da epekako eragiketetan aski izaneren dela epeeta-ko baten kobrantza prematzea oinarria alda dadin.

Esparru horretan bertan, aldaketa argigarri bat-zuk egin dira, enpresaburu gisa jarduten ez duten eta tributu zorra ordaindu gabe duten hartzaileei fakturak zuzentzen zaizkien kasurako, ez daitezen zordun bihurtu Administrazioarekin.

Azkenik, aipatu beharra dago 19/1992 Foru Legearen artikulua batzuetan egindako aldaketa sorta bat, fakturazioaren arloko betebeharreri dago-kienz, barne araudia Europar Batasunak gai hauei buruz emandako zuzentarauetara egokitze-ko, besteak beste, faktura ordeztzen duten doku-mentuak luzatzeko aukera kentzea eta paperezko fakturek eta faktura elektronikoei tratatu berdina iza-tea.

Adierazitakoarekin bat, beharrezkoa da Foru Komunitateak Balio Erantsiaren gaineko Zergari buruzko abenduaren 30eko 19/1992 Foru Legeari dagozkion aginduak balio erantsiaren gaineko zer-gari buruzko araudiak araubide erkidean izan duen aldaketara egokitzea.

Aipatu legegintzarako eskuordetzea baliatuz, tributu harmonizaziorako legegintzako foru dekretu bidez ematen da 19/1992 Foru Legea aldatzeko behar den araua, 14/2004 Foru Legearen aipatu 54.1 artikuluari jarraituz.

Foru arauak eta Estatuan parekoa denak indarra hartu eta eragina batera izan dezaten, berariaz xedatu da 19/1992 Foru Legearen egindako aldake-tek zer egunetatik aurrera izaneren duten eragina; bestetik, 14/2004 Foru Legearen 54.4 artikulua- ren arabera, atzerako eragina izaten ahalko dute, har- monizazioaren xedeko araubide erkidegokoekin batera indarra har dezaten.

Horiek horrela, Nafarroako Gobernuak, Ekono- mia, Ogasun, Industria eta Enpleguko kontseilari- ak proposaturik, eta bi mila eta hamahiruko otsai- laren hamahiruan egindako bilkuran hartutako erabakiarekin bat,

DEKRETATU DUT:

Artikulu bakarra. Balio Erantsiaren gaineko Zergari buruzko Foru Legea aldatzea.

Balio Erantsiaren gaineko Zergari buruzko abenduaren 30eko 19/1992 Foru Legearen agindu hauek aldatu dira, eta ondoren azaldu bezala gel- ditu:

Bat. 8.2 artikulua, bigarrena.

“Bigarrena. Zergaren subjektu pasiboek berai- en enpresa edo lanbide ondaretik elkarte, onda- sun komunitate edo edozein motatako entitateei egindako diru bidezkoak ez diren ekarpenak, eta horien likidazio edo desegite oso edo hein batekoa dela eta, izaera honetako esleipenak, ondare eskualdaketa eta egintza juridiko dokumentatuen gaineko zergako “egintza juridiko dokumentatuak” eta “sozietate eragiketak” kontzeptuak erregula- tzen dituzten arauari jarraikiz behar den tributazioa galarazi gabe.

Zehazki, ondasun entregatzat hartuko da ondasun erkidego batek estatututako lurra edo eraikinak erkidegoko kideei esleitzea, haien partai- detza kuotaren proportzioan.”

Bi. 17.1 artikulua, hamabigarrena, A) letra.

“A) Eraikinak altxatu edo zaharberritu ondoren egiten diren bigarren entregak eta ondorengoak, eraikinak zein lurretan dauden, haiek ere barne.

Foru lege honetan xedatutakoaren ondorioeta- rako, sustatzaileak, eraikuntza edo zaharberritze obra bukatuta dela, egiten duen entrega lehen entregatzat hartuko da. Hori hala izanik ere, susta- tzaileek egindako entregak ez dira lehenengo entregatzat hartuko, baldin eta entrega hori jabeak berak, eraikina gozatu edo erabiltzeko eskubide errealak dituzten titularrek edo erosteko aukerarik gabeko errentamendu kontratuaren bidezko maiz- terrek bi urtez edo gehiago jarraian erabili ondoren egiten bada, salbu eta epe horretan eraikina erabili zuena eroslea bera baldin bada. Ondorio horreta- rako, ez da kontuan hartuko erosleek eraikina era- biltzen egindako denbora, hura eskualdatzeko egindako eragiketak ebazten diren kasuetan.

Eraikinen urbanizazio obra osagarriak zer lurretan egin diren, haiek ere eraikinak kokatzen diren lurretan sartuko dira. Dena dela, familia bakarreko etxebizitzak badira, lurzoru urbanizatu

osagarriak ez dira 5.000 metro koadrotik gorakoak izanen.

7.1. artikuluan ezarritakoaren ondorioz zergari lotuak ez dauden eskualdaketak ez dira lehenengo entregatzat hartuko zenbaki honetan ezarritakoaren ondorioetarako.

Zenbaki honetan aurreikusitako salbuespena ez da honako hauetan aplikatuko:

a) Errentamendu kontratu batean ezarritako erosteko aukerabidea baliatzearen ondorioz egiten diren eraikinen entregak, finantza errentamenduko eragiketak egin ohi dituzten enpresek eginak. Ondorio horietarako, berdinak dira errentatzaileari erosteko aukerabidea baliatzeko konpromisoa eta aukera hori baliatzea.

Aurreko lerroaldean aipatzen diren finantza errentamenduko kontratuak hamar urteko iraupena izanen dute gutxienez.

b) Zaharbertzeko asmoz erosleak egiten dituen eraikinen entregak, betiere ezartzen diren erregelamenduzko baldintzak betetzen badira.

c) Eraisteko diren eraikinen entregak, gero bertan hirigintza sustapen bat egiteko.”

Hiru. 17.1 artikulua, hemeretzigarrena eta hogeigarrena.

“Hemetretzigarrena. Zerbitzu prestazioak eta haien osagarri diren ondasun entregak, baldintza hauek betetzen badituzte: legez onarturiko erakunde edo entitateek, irabazteko asmorik ez dutenek eta soil-soilik izaera politiko, sindikal, erlijioso, patriotiko, filantropiko edo zibikoko xedeak dituztenek, beraien kideei zuzenean eginak, beren xede berariazkoak lortzeko, eta betiere erakunde edo entitate horiek jarduketa horien onuradunengandik estatutuetan finkaturiko kotizazioak ez besteko kontraprestaziorik jasotzen ez badute.

Ulertuko da aurreko lerroaldean sarturik daudela lanbide elkargoak, ganbera ofizialak, enpresaburuen elkarteak eta atal honek aipatzen dituen erakunde edo entitateak biltzen dituzten federazioak.

Salbuespen hau aplikatzeko, ez du okertzerik eragin beharko eskumen aldetik.”

“Hogeigarrena. Beren kideei bat egite, batasun edo entitate autonomoek zuzenean emandako zerbitzuak, interes ekonomikoko batasunek emandakoak barne, baldin eta horako horiek osatzen dituztenak zergari atxikirik ez edo hura ordaintzetik salbuetsirik dagoen jarduera batean ari diren pertsonak badira, honako baldintza hauek gertatzen direnean:

a) Aipatu zerbitzu horiek zuzen eta eskusiboki erabil daitezela aipatu jarduera horretan, eta beharrezkoak izan daitezela haiek burutzeko.

b) Kideek elkarrekin egindako gastuetatik dagokien zatia besterik ez dezatela jaso.

Salbuespena aplikatuko da, halaber, aurreko b) letran aurreikusitako baldintza beteta, kenketaren hainbanakoa ehuneko 10etik beherakoa denean eta zerbitzua ez bada zuzenean eta soilik erabiltzen kenketarako eskubidea sortzen duten eragiketetan.

Salbuespenak ez ditu hartuko merkataritzako sozietateek emandako zerbitzuak.”

Lau. 17.3 artikulua.

“3. Artikulu honetan xedatutakoaren ondorioetarako, izaera sozialeko entitate edo establezimendutzat hartuko dira honako baldintza hauek betetzen dituztenak:

Lehena. Irabazteko xederik ez izatea eta esku-ratzen diren mozkinak, halakorik bada, izaera bereko jarduera salbuetsiak burutzen erabiltzea.

Bigarrena. Legezko ordezkari, patronatukide edo presidente karguek doakoak izan beharko dute eta ez dute, berez edo tarteko pertsonaren bidez, ustiapenaren emaitza ekonomikoekiko interesik izanen.

Hirugarrena. Entitate edo establezimenduetako bazkide, jabekide edo partaideak eta haien ezkontide edo odolezko ahaideak, bigarren graduokotaraino, horiek barne, ezin izanen dira salbuetsirik eragiketen hartzaile nagusi izan, ez eta zerbitzuen prestazioaren egoera berezietan baliatu ere.

Betebehar hori ez da aplikatuko zerbitzu prestazioak artikulua honetako 1. idatz-zatiko 9. eta 17. zenbakietan aipatutakoak direnean.

Aurreko baldintzak betetzen dituzten entitateek tributuen arloko administrazioari eskatu ahal izanen diote izaera sozialeko entitate edo establezimendu pribatuen kalifikazioa emateko, betiere erregelamenduz ezarritako diren baldintza, modu eta betebeharrekin. Kalifikazioa loteslea izanen da Administrazioarentzat, baina balioa izan dezan, betiere, beharrezkoa izanen da, foru lege honetan xedaturikoaren arabera, salbuespenaren oinarria osatzen duten baldintzek eta betebeharrek irautea.

Aurreko baldintzak betetzen dituzten izaera sozialeko entitateek edo establezimenduek emandako zerbitzuei dagozkien salbuespenak aplikatuko dira aurreko lerroaldean aipatzen den kalifikazioa lortu ala ez, baldin eta kasu bakoitzean aplikatzekoak diren baldintzak betetzen badira.”

Bost. 24.1 artikulua, zazpigarrena.

“Zazpigarrena. Errentamenduetan, horniduretan eta, oro har, segidako traktuko eragiketetan, jasotze bakoitzari dagokion prezioaren zatia eskatzen ahal den unean.

Dena dela, prezioa adostu ez denean edo, adostuta egonda ere, ordainketa noiz eskatuko den zehaztu gabe dagoenean, edo ordainketaren aldizkotasuna urte natural batetik gorakoa denean, Zergaren sorrarazpena urte bakoitzeko abenduaren 31n gertatuko da eta eragiketaren hasieratik edo aurreko sortzapenetik egun hori arte igarotakoari dagokion zati proportzionala ordaindu behar da.

Aipatutako hornidurak 22. artikuluan 1. eta 3. zenbakietan jasotako ondasun entregak direnean, eta prezioa adostu ez denean edo, adostuta egonda ere, ordainketa noiz eskatuko den zehaztu gabe dagoenean, edo ordainketaren aldizkotasuna hilabete naturaletik gorakoa denean, zergaren sorrarazpena hilabete bakoitzeko azken egunean gertatuko da, eta eragiketaren hasieratik edo aurreko sortzapenetik egun hori arte igarotakoari dagokion zati proportzionala ordaindu behar da.

Aurreko lerroaldeetan xedatutakotik aparte geldituko dira 1. idatz-zatiko bigarren lerroaldean aipatzen diren eragiketak.”

Sei. 24.1 artikulua, zortzigarren idatz-zatia gehitzea.

“Zortzigarrena. 22. artikuluan jasotzen diren ondasun entreetan, aurreko atalean aipatutakoez beste batzuetan, zergaren sortzapena gertatuko da ondasunak eskuratzailari bidali edo garraiatzeko lanak hasi eta hurrengo hilabetearen 15ean.

Nolanahi ere, egun hori baino lehenago eragiketaren faktura luzatu bada, zergaren sortzapena faktura luzatu zen egunean gertatuko da.”

Zazpi. 28. artikulua, 4 eta 5. idatz-zatiak.

“4. Zerga-oinarria proportzionalki murrizten ahalko da, orobat, kargaturiko eragiketengatik jasanarazitako kuotei dagozkien kredituak, osorik edo partez, kobraezinak direnean.

Ondorio horietarako:

A) Kreditu bat osorik edo partez kobraezina dela ondorioztatuko da baldintza hauek betetzen baditu:

Lehena. Jasanarazitako zerga sortu zenetik urtebete igarotzea haren ondoriozko kreditua osorik edo partez kobratu gabe.

Nolanahi ere, eperako edo prezio geroratuko eragiketen kasuan, urtebete igaro behar da ordaindu gabeko epea edo epeak amaitzen direnetik zerga-oinarria proportzionalki murriztu ahal izateko. Ondorio horietarako, eperako edo prezio geroratuko eragiketatzat hartuko dira kontraprestazioa ordainketa bakarraren edo hurrenez hurrenekoen bidez beteko dela adostu diren horiek; betiere, jasanarazitako zerga sortzen denetik azken ordainketa edo ordainketa bakarra egiteko epea amaitzen den arte urtebete baino gehiago igaro bada.

Murriztu gogo den zerga-oinarriari dagokion kreditu eskubidearen titularraren (enpresaburua edo profesionala) eragiketen bolumena, 66. artikuluan xedatutakoaren arabera kalkulatu, 6.010.121,04 eurotik gorakoa izan ez denean aurreko urte naturalean, 1. baldintza honetan aipatu urtebeteko epea sei hilabetekoa izanen da.

Bigarrena. Inguruabar hori zergarako behar diren erregistro-liburuetan jasota izatea.

Hirugarrena. Eragiketaren hartzaileak enpresaburu edo profesional gisa jardutea, edo, bestela, eragiketaren zerga-oinarria, balio erantsiaren gaineko zerga kenduta, 300 eurotik gorakoa izatea.

Laugarrena. Subjektu pasiboak kobrantza eskatu izana zordunari erreklamazio judizial baten bitartez edo notario bidezko errekerimendua egin da, baita ente publikoek bermatutako kredituak direnean ere.

Aurreko lehen baldintzan aipatutako eperako eragiketen kasuan, nahikoa izanen da zordunari epe horietako baten kobrantza eskatu izana, erreklamazio judizialaren bidez edo notario bidezko errekerimendua eginez, zerga-oinarria aldatzeko ordaindu gabeko epeari edo epeei dagokien proportzioan.

Ente publikoek zor dituzten kredituak direnean, 4. baldintzan aipatu erreklamazio judizialaren edo notario bidezko errekerimenduaren ordean, ente publiko zorduneko organo eskudunaren ziurtagiria erabiliko da, bertako kontu hartzaileak edo diruzainak zordunaren betebeharra eta zenbatekoa aitortzeko eginen duen txostenarekin bat.

B) Aldaketa hiru hilabeteko epean egin behar da, lehen baldintzan aipatu urtebeteko epea bukatzen denetik, eta horrez gainera, zerga arloko administrazioari jakinarazi behar da zaio erregelamenduz ezartzen den epean.

Murriztu gogo den zerga-oinarriari dagokion kreditu eskubidearen titularraren (enpresaburua edo profesionala) eragiketen bolumena, 66. artikuluan xedatutakoaren arabera kalkulatu,

6.010.121,04 eurotik gorakoa izan ez denean aurreko urte naturalean, aurreko lerroaldean aipatu urtebeteko epea sei hilabetekoa izanen da.

C) Zerga-oinarria murriztu ondoren, ezin izanen da hura handitu, subjektu pasiboak kontraprestazio osoa edo zati bat kobratzen badu ere, salbu eta hartzaileak ez badu enpresaburu edo profesional gisa jarduten. Horrelako kasuetan, ulertuko da balio erantsiaren gaineko zerga jasotako diru-kopuruetan sartuta dagoela, jasotako kontraprestazioaren proportzio berean.

Aurreko lerroaldean xedatutakoa gorabehera, subjektu pasiboak bertan behera uzten badu zordunari erreklamazio judiziala egitea, edo notario bidezko errekerimenduaren ondotik kobratzeko akordioa lortzen badu, horren edo beste edozein arrazoiren ondorioz, berriz igo beharko du zerga-oinarria, erreklamazioa bertan behera utzi edo kobratzeko akordioa lortu eta hilabeteko epean faktura zuzentzaile bat luzatuta, non behar den kuota jasanaraziko baita.

5. Zerga-oinarria aldatzeko kasuetan, aurreko 3. eta 4. zenbakietan aipatutakoetan, arau hauek aplikatuko dira:

Lehena. Ez da bidezkoa zerga-oinarria aldatzea kasu hauetan:

a) Berme erreala duten kredituak, zati bertan.

b) Kredituko entitateek edo elkarren bermerako sozietateek fidantzatutako kredituak edo kauzio- edo kreditu-aseguruko kontratu baten bidez estaliak, fidantzatu edo aseguratutako zatian.

c) Lotura duten pertsona edo entitateen (27.5 artikuluan definituak) arteko kredituak.

d) Ente publikoek zor edo fidantzatuta dituzten kredituak.

d) letran xedatutakoa ez da aplikatuko zerga-oinarria murrizteko, hau da, osorik edo parte batean kobraezintzat jotako kredituetarako, 4. zenbakian ezarritakoaren arabera; alabaina, agiri bidez frogatu beharko da ordaindu ez izana, agindu horren 4. baldintzan aipatzen dena.

Bigarrena. Eragiketen hartzailea zerga aplikatzen den lurraldean kokatua ez badago, ezta Kanariar Uharteetan, Ceutan edo Melillan ere, ez da bidezkoa zerga-oinarria aldatzea.

Hirugarrena. Era berean, ez da bidezkoa zerga-oinarria aurreko laugarren zenbakian jarraituz aldatzea konkurtsoaren deklarazioaren autoa eman ondoren, sortzapena auto hori baino lehe-

nagokoa duten eragiketengatik jasanarazitako kuotei dagozkien kredituen kasuan.

Laugarrena. Aipatu aldaketaren aurreko ordainketa partzialen kasuan, ulertuko da balio erantsiaren gaineko zerga jasotako diru-kopuruetan sartuta dagoela, jasotako kontraprestazioaren proportzio berean.

Bosgarrena. Eragiketen hartzailearen kenkariak zuzentzen direnean (60.2.2 artikuluko bigarren lerroaldean xedatutakoaren arabera egin beharko da) sortuko da Ogasun Publikoaren aldeko kreditua.

Zergari atxikitako eragiketen hartzaileak ez badu zergaren kenkari osorako eskubiderik izan, Ogasun Publikoaren zordun ere izanen da; kenkari gabeko zergaren kuotaren zenbatekoa izanen du zor. Hartzaileak ez badu enpresaburu edo profesional izaerarekin jarduten, eta zor hori ordaindu ez badu, aurreko laugarren zenbakiko C) letran ezarritakoa aplikatuko da.”

Zortzi. 34. artikulua, 2. eta 3. idatz-zatiak.

“2. Zerga jasanarazteko, faktura erabili beharko da, erregelamenduz ezartzen diren baldintza eta beharkizunak betez.

Horren ondorioetarako, jasanarazitako kuota zerga-oinarritik aparte emanen da, are administrazioak finkatutako prezioen kasuetan ere, eta aplikatu den zerga tasa aipatu beharko da.

Zenbaki honetako aurreko lerroaldeetan ezarritakotik salbuetsita gelditzen dira erregelamendu bidez finkatzen diren eragiketak.

3. Faktura luzatu eta entregatzearekin batera jasanarazi beharko da zerga.”

Bederatzi. 35.2 artikulua.

“2. Aurreko zenbakian xedatutakoa inolako kuartirik jasanarazi ez den kasuetan ere aplikatuko da, eragiketa horren faktura luzatu baldin bada.”

Hamar. 108.ter artikulua, 1.e) letra.

“e) Eragiketen jasotzailea zergaren aplikazio esparruaren barrinean ezarrita dagoenean edo ohiko helbide edo bizilekua esparru horretan denean, faktura luzatu eta entregatzea.”

Hamaika. 108 ter artikulua, 2. idatz-zatia.

“2. Europar Batasunean finkatuta ez dagoen enpresaburuak edo profesionalak araubide berezian hasteko aitortpena Espainiaz kanpoko beste estatu kide batean aurkeztea aukeratu baldin badu, balio erantsiaren gaineko zergaren araubide arrunta arautzen duen Legearen 70. artikuluaen Bat idatz-zatiaren 4. zenbakian xedatutakoaren

arabera, zerga aplikatzen den lurraldearen barnean egindakotzat hartu behar diren eragiketei dagokienez, aurreko zenbakian aipatu aitorpena identifikaziorako estatu kidean aurkeztuz egin behar da eragiketa horiei dagokien zergaren ordainketa.

Gainera, Europar Batasunean finkatuta ez dagoen enpresaburuak edo profesionalak aurreko 1. zenbakian aipatu beharkizunak identifikaziorako estatu kidean bete beharko ditu, zehazki, zenbaki horren d) letran adierazitakoak. Orobat, enpresaburuak edo profesionalak faktura luzatu eta eman beharko du, eragiketen hartzailea zerga aplikatzen den lurraldean finkatuta baldin badago edo ohiko helbide edo bizilekua bertan baldin badu.”

Hamabi. 109.2 artikulua.

“2. Enpresaburu edo profesionalak egindako eragiketen faktura egin eta entregatzeko beharkizuna enpresaburu edo profesional horien bezeroak betetzen ahalko du, edo hirugarren batek, erregelamenduz ezarriko den moduan. Nolanahi ere, beti haren izenean eta kontura arituko dira.

Beharkizun hori enpresaburu edo profesionalaren bezero batek betetzen duenean, bi alderdien arteko adostasuna beharko da aldez aurretik. Gainera, enpresaburu edo profesionalak bere izenean eta bere kontura bezeroak egiten dituen faktura guzti-guztiak onartzen dituela bermatu beharko da.

Enpresaburuak edo profesionalak, bezeroak edo hirugarren batek, kasuko enpresaburu edo profesionalaren izenean eta haren kontura, egindako fakturak paperean edo bide elektronikoak erabiliz igor daitezke, baina bigarren kasuan betiere fakturen jasotzaileak baimena eman baldin badu.

Fakturak, paperezkoak nahiz elektronikoak, bermatu beharko ditu jatorriaren autentikotasuna, edukia oso-osorik iritsiko dela eta irakurgarritasuna, faktura luzatzen denetik eta gorde beharreko denbora guztian.

Erregelamenduz ezarriko da zein beharkizun bete beharko dituen fakturen luzapenak, igortzeak eta kontserbazioak.”

Hamahiru. 116.1 artikulua, hirugarrena.

“Hirugarrena. 3. idatz-zatiko 2. zenbakian ezarritakoak diru-isun proportzionala jarritz, bidegabeki jasanarazitako kuoten ehuneko 100ekoa, gutxienez 300 euro araua hausten duen faktura bakoitzeko.”

Azken xedapen bakarra. Indarra hartzea.

Tributu harmonizazioari buruzko legegintzako foru dekretu honek Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitara eman eta biharamunean hartuko du indarra, eta 2013ko urtarrilaren 1etik aurrera izanen ditu ondorioak.

2/2013 Legegintzako Foru Dekretua, otsailaren 13koa, Tributu Harmonizazioari buruzkoa, Zerga Bereziei buruzko abenduaren 30eko 20/1992 Foru Legea aldatzen duena.

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2013ko otsailaren 18an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, hurrengo erabakia hartu zuen, besteak beste:

Ikusita otsailaren 13ko 2/2013 Legegintzako Foru Dekretua, Tributu Harmonizazioari buruzkoa, Zerga Bereziei buruzko abenduaren 30eko 20/1992 Foru Legea aldatzen duena, eta kontuan harturik Nafarroako Gobernuari eta Lehendakariari buruzko 14/2004 Foru Legearen 54. artikuluan eta Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 162. artikuluan xedatutakoa, hona ERABAKIA:

1. Adieraztea otsailaren 13ko 12/2013 Legegintzako Foru Dekretuaren berri izan duela, Tributu Harmonizazioari buruzkoa, Zerga Bereziei buruzko abenduaren 30eko 20/1992 Foru Legea aldatzen duena.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

Iruñean, 2013ko otsailaren 18an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

2/2013 Legegintzako Foru Dekretua, otsailaren 13koa, Tributu Harmonizazioari buruzkoa, Zerga Bereziei buruzko abenduaren 30eko 20/1992 Foru Legea aldatzen duena

Estatuaren eta Nafarroako Foru Komunitatearen arteko Hitzarmen Ekonomikoaren 35.4. artikulua ezartzen du ezen Foru Komunitateari dagozkion zerga bereziak ordainarazteko unean-unean Estatuko lurraldean indarra duten oinarritzko printzipio, funtsezko arau eta arau formal berak aplikatuko dituela hark. Hala ere, Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioak aitortpena egin eta dirua pagatzeko ereduak onesten ahalko ditu, gutxienez ere araubide erkideko lurraldeko datu berak jasoko dituztenak, eta likidazioaldi bakoitzeko pagatzeko epeak finkatzen ahalko ditu, Estatuko Administrazioak ezartzen dituenetatik sobera bereiziko ez direnak.

Bestetik, Nafarroako Gobernuari eta Lehendakariari buruzko abenduaren 3ko 14/2004 Foru Legeak, 54.1 artikuluan, Nafarroako Gobernuaren araugintzarako ahalmena erregulatzean ezartzen duenez, tributu-araubide erkidearen aldaketa

batek behartzen badu, Hitzarmen Ekonomikoan ezarritakoarekin bat, Estatuan indarra duten arau funtsezko eta formazko berberak Foru Komunitatean aplikatzera, Nafarroako Gobernuak tributu arloko foru legeak aldatzeko behar diren foru lege mailako arauak eman ditzake, Nafarroako Parlamentuak eskuordeturik. Aipatu 14/2004 Foru Legearen 54.2 artikuluan xedatutakoari jarraikiz, Nafarroako Gobernuaren xedapenei, aipatu legegintzarako eskuordetzearen ondorio direnean, "tributu harmonizaziorako legegintzako foru dekretu" izena emanen zaie.

Estatuan berriki izandako araugintza oparua honakoetan ikus daiteke: Estatuko 2012ko Aurrekontu Orokorrei buruzko 2/2012 Legea, ekainaren 2koa; 15/2012 Legea, abenduaren 27koa, iraunkortasun energetikoari buruzkoa, eta Estatuko 2013ko Aurrekontu Orokorrei buruzko 17/2012 Legea, abenduaren 27koa. Xedapen horiek zenbait aldaketa egin dituzte zerga bereziak arautzen dituen abenduaren 28ko 38/1992 Legean, eta, beraz, beharrezkoa da foru legerian egokitzapena egitea.

2/2012 Legearen azken xedapenetako hamabigarrenak zazpigarren xedapen iragankorra erantsi zion abenduaren 18ko 22/2009 Legeari, hots, araubide erkidegoko autonomia erkidegoak eta autonomia estatutua duten hiriak finantzatzeko sistema arautzen duenari. Haren ondorioz, zenbait hidrokarburoren txikizkako salmenten gaineko zerga hidrokarburoen gaineko zergan sartu zen.

Aipatutako 2/2012 Legeak, bestalde, azken xedapenetako hogeigarrenean, Zerga Bereziei buruzko abenduaren 28ko 38/1992 Legea aldatu zuen, zenbait hidrokarburoen txikizkako salmenten gaineko zerga hidrokarburoen gaineko zergan sartzearen alderdi teknikoak egokitzearren.

Foru Komunitatean, berriz, abenduaren 26ko 21/2012 Foru Legeak, zenbait zerga aldatu eta beste tributu-neurri batzuk hartzeari buruzkoak, laugarren xedapen gehigarrian ezartzen duenez, zenbait hidrokarburoen salmenten gaineko zergaren karga-tasa autonomikoak, zeinak Diru-sarrera publikoak handitzeko zenbait tributu-neurri ezartzen dituen ekainaren 15eko 10/2012 Foru Legean ezarri baitziren, hidrokarburoen gaineko zergaren zerga-tasa autonomiko gisa aplikatuko dira, 2013ko urtarrilaren 1etik aurrerako eraginarekin.

Horren guztiaren ondorioz, beharrezkoa da Zerga Bereziei buruzko abenduaren 30eko 20/1992 Foru Legea aldatzea, sorrarazpenari eta tributudunei buruzko alderdi batzuetan.

Bestalde, zenbait garraibideren gaineko zerga bereziari dagokionez, berriz, salbuespen bat gehitu da Europar Batasuneko beste estatu kide batean matrikulatutako ibilgailuetarako.

Horregatik guztiagatik, beharrezkoa da, lehen aipatutako legegintzarako eskuordetzea erabiliz, tributu harmonizaziorako legegintzako foru dekretu baten bidez Zerga Bereziei buruzko abenduaren 30eko 20/1992 Foru Legea aldatzeko behar diren arauak ematea, abenduaren 3ko 14/2004 Foru Legearen 54.1 artikularekin bat, Estatuarekin sinatutako Hitzarmen Ekonomikoaren 35. artikularen arabera Nafarroako Foru Komunitateak Estatu lurraldean indarra duten arau berdin-berdinak -bai funtsari bai formari dagokionez- aplikatu behar dituen alderdietarako.

Foru arauak eta Estatuan parekoa denak indarra hartzearen ondorioak batera has daitezten, berariaz xedatu da 20/1992 Foru Legearen egindako aldaketek zer egunetatik aurrera izanen duten eragina; bestetik, 14/2004 Foru Legearen 54.4 artikularen arabera, atzerako eragina izaten ahalko dute, harmonizazioaren xedeko araubide erkidegokoekin batera indarra har dezaten.

Horiek horrela, Nafarroako Gobernuak, Ekonomia, Ogasun, Industria eta Enpleguko kontseilariak proposaturik, eta bi mila eta hamahiruko otsailaren hamahiruan egindako bilkuran hartutako erabakiarekin bat,

DEKRETATU DUT:

Artikulu bakarra. Zerga Bereziei buruzko abenduaren 30eko 20/1992 Foru Legea aldatzea.

Zerga Bereziei buruzko abenduaren 30eko 20/1992 Foru Legearen agindu hauek aldatu eta ondoren azaldu bezala erredaktatuta geldituko dira:

Bat. 7. artikulua, 12. eta 13. idatz-zatiak gehitzea.

“12. Zerga Bereziei buruzko abenduaren 28ko 38/1992 Legearen 50.ter artikulua aipatzen duen hidrokarburoen gaineko zergaren tasa autonomikoren aplikazioari dagokionez, zergaren sorrarazpena honako arauari jarraikiz gertatuko da:

a) Oro har, zerga-tasa autonomikoa aplikatzeko, zergaren sorrarazpena artikulu honen aurreko idatz-zatietan eta 38/1992 Legearen 50.ter artikularen 2. idatz-zatian adierazitako arauari jarraikiz eginen da.

b) Produktuak etendura-araubidetik kanpo baldin badaude autonomia erkidego baten lurraldean, eta beste autonomia erkidego baten lurraldera berbidaltzen direnean, orduan sorraraziko da zerga, zerga-tasa autonomiko horri dagokionez soilik, produktuak dauden establezimendutik ateratzen direnean beste erkidego baten lurralderantz. Lerroalde honetan aurreikusitakoa aplikatzeko, arau hauek kontuan hartuko dira:

Lehena. Aplikatu beharreko zerga-tasa autonomikoa destinoko autonomia erkidegoak ezarritakoa izanen da.

Bigarrena. Destinoko autonomia erkidegoak zerga-tasa autonomikorik ezarririk ez badu, ulertuko da sorrarazpenari aplikatu beharreko zerga-tasa autonomikoa zero dela.

Hirugarrena. b) letra honetan ezarritakoarekin bat sorrarazten diren kuoten erregularizazioa, aurretik sortutakoen aldean, 38/1992 Legearen 50.ter artikularen 3. idatz-zatian aurreikusitakoarekin bat eginen da.

Ez da zerga-tasa autonomikoren sorrarazpenik gertatuko jatorriko autonomia erkidegoak eta destinokoak halakorik ezarri ez badute.

13. Artikulu honen aurreko idatz-zatietan ezarritakoa gorabehera, gas naturala fabrika edo biltegi fiskaltzat hartzen diren instalazioetatik gas naturalaren hornidurarako kostu bidez eginiko kontratu baten barruan ateratzen denean, hidrokarburoen gaineko zergaren sorrarazpena fakturazioaldi bakoitzean hornitutako gas naturalari dagokion prezioaren zatia eskatu daitekeenean gertatuko da. Aurrekoa ez da aplikatzekoa izanen gas naturalaren destinoa beste fabrika edo biltegi fiskal bat denean.

Artikulu honen 1. idatz-zatian aurreikusitakoa aplikatzeko, aurreko lerroaldeak aipatzen dituen gas naturalaren horniduraz beste batzuetarako, gehienez ere hirurogei egunez jarraian hornitutako gas natural osoa fabrika edo biltegi fiskaletik epe hori amaitu eta hurrengo hilabete naturaleko lehen egunean atera dela ondorioztatu dezakete subjektu pasiboek.”

Bi. 8.2 artikulua, e) letra gehitzea.

“e) 7. artikularen 12.b) zenbakian aurreikusitako kasuetan, produktuak dauden autonomia erkidegotik beste baten lurraldera berbidaltzen direnean, produktu horiek zein establezimendutatik bidaltzen diren, horren titularrak.”

Hiru. 8.3 artikulua.

“3. Subjektu pasibo dira, tributudunen ordezkogisa, Zerga Bereziei buruzko 38/1992 Legearen 4.

artikuluko 28. idatz-zatian aipatzen diren ordezkari fiskalak.

Halaber, subjektu pasibo dira, tributudunen ordezeko gisa, foru lege honen 7. artikuluko 13. zenbakian, lehen lerroaldean, aurreikusitako kasuan gas naturalaren hornidurak kostu bidez egiten dituztenak.”

Lau. 43.1.f) artikulua.

“f) Batasuneko beste estatu kide batean matrikulatutako ibilgailu automobilak, beste estatu kide batean establezimendua duten pertsonak edo entitateek Espainian egoitza duen pertsona fisiko baten eskura utzitakoak, betiere baldintza hauek betetzen badituzte:

Lehena. Eskura jartze hori egoitza duen pertsona fisikoarekin dagoen lan harremanaren ondorioz gertatzen bada, harreman hori soldatapekoa izan ala ez.

Bigarrena. Ibilgailua bereziki ez erabiltzea zerga modu iraunkorrean aplikatzen den lurraldean.

Ondorio horietarako, ibilgailua, bereziki, zerga modu iraunkorrean aplikatuko den lurraldean ez dela erabiltzen ulertuko da jasotzen duenak Espai-

nian egoitza edukita ere lantokia mugakide den beste estatu kide batean duenean, eta ibilgailua erabiltzen badu lantokira joan-etorriak egiteko, oporrak kontuan hartu gabe.”

Aldaketa horren ondorioz, 43. artikuluko 1. idatz-zatiko f) letra zena g) letra izanen da aurreantzean, eta hurrengoak berdin.

Bost. 43.2. artikuluko lehen lerroaldea.

“2. Aurreko zenbakiko a), b), c), d), f), g), j) eta l) letretan aipatzen diren salbuespenak aplikatzeko baldintza izanen da Zerga Administrazioak aurrez baimena ematea, erregelamenduz finkatzen den moduan. Bereziki, d) letrak aipatzen duen salbuespenaren kasuan, beharrezkoa izanen da aurrez Foru Komunitateko Gizarte Politiketako Departamentuko zerbitzuek, Gizarte Zerbitzuen Institutu Nazionalak edo kudeaketa entitate eskudunek minusbaliotasunaren edo baliaezintasunaren ziurtagiria ematea.”

Azken xedapen bakarra. Indarra hartzea.

Tributu harmonizazioari buruzko legegintzako foru dekretu honek Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitara eman eta biharamunean hartuko du indarra, eta 2013ko urtarrilaren 1etik aurrera izanen ditu ondorioak.

